

2014ko Apirila

K

Oñatiko Udala 238. zkia.

ONTZEJUPETIK

Belaunaldi arteko elkartasuna

Adineko pertsonen bizi kalitatea eta gizarte parte-hartzeari buruzko hitzaldi zikloa antolatu du Udalak.

Apirilaren 7, 9 eta 10ean Sancti Spiritus Unibertsitatean.


pinturas
MUÑOZ
margoak

MARGOAK, ATE METALIKOAK
eta ATE AUTOMATIKOAK


Olakua 7, behea
Tel.: 686 975 819
20560 Oñati

Liburutegiko BERRIAK

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



HAUR LITERATURA
"Adelaida"
Kalandraga.



LITERATURA
"Inon ez, inoiz ez"
Elkar.



EKOLOGIA LIBURUA
"Cambiar las gafas para mirar el mundo."
Ecologistas en acción.




HAUR KOMIKIA
"Hilda y el gigante de medianoche"
Barbara Fiore.



INFORMAZIO LIBURUA + CDa
"Soluciones educativas para dificultades de aprendizaje"
Oceano.



GAZTE LITERATURA
"Zortzi ipuin gotiko"
Elkar.



SAIAKERA
"Cero cero cero"
Anagrama.

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 - 13:00 / 16:30 - 20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 - 19:30



TXALOKA Ludoteka UdaBerriko ekintza Bereziak Herriko Plazan

APIRILAK 14 SUKALDARITZA 17.00-20.00

APIRILAK 15 Wii 17.00-20.00

APIRILAK 16 Altxorraren Bila 17.00-20.00

APIRILAK 22 Jaboigintza 10.30-13.30

APIRILAK 23 Bilalbia 10.30-13.30

APIRILAK 24 Karaokea 10.30-13.30

APIRILAK 25 Igeltsuzko karetak 10.30-13.30



Jolasa Baina Gehiago!



UDAL BERRIAK

- 4 Tokiko Gobernuari Galdezka
- 5 Talde politikoen iritziak
- 6 Gutunak
- 8 Herritarren iritzia
- 10 Belaunaldien arteko elkartasunari buruzko hitzaldi zikloa
- 12 Umerezko ur biltegia martxan jarriko dute San Martingo etxeak hornitzeko
- 14 Langabetuak kontratatzen dituzten enpresa txikientzako dirulaguntzak
- 15 Ekintzailetasuna sustatzeko hiru bulego berri egokitu ditu Udalak Olaburun
- 16 Kultura, Gazteria eta Berdintasun arloko dirulaguntza deialdiak
- 17 Uaberriko ekintza bereziak ludotekan
- 18 Gazteentzako sexologia aholkularitza zerbitzua Gaztelekuan
- 19 Gomendiotarren funtsa berrituko dute

GURE HERRIAN

- 20 Bakez eta berradiskidetzea aztergai
- 22 Floren Aoizekin elkarriketa
- 24 Cegasako langileen manifestazioa
- 25 Enpresa ekimen berria: Plantxaprest
- 26 Bizikleta-zaleen txoko berria

KIROLAK

- 28 Aloñako Igoera berritasun ugarirekin dator hamargarren edizioan
- 29 Nerea Diaz Euskadiko txapelduna eta Josune Odriozolak 5 domina Espainiakoa

KULTURA

- 30 Ganbara Abesbatzak Kantu Koraleko Sari Nagusian parte hartuko du
- 31 Kantua kalean ospatuko da apirilaren 5ean Sean
- 32 Liburuaren hilabetea udal liburutegian
- 33 Komikia argitaratu du Jabi Erostarbek formatu digitalean
- 34 Europako Robotika lehiaketako finalean izan dira MGEpko ikasleak
- 38 Antxiñako Fotografia



iritzia



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizugu:

- Ezkontzak
- Asteburuko menu bereziak
- Enpresen harrera ekitaldiak

www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Hobea - Jabetza





ERRETURAK BASERRIETAN

? Ugarkaldeko bizilagun bat naiz. Bada denbora inguruetakotako baserrietan egiten diren "erreturak" direla medio (oso sarritan), exekitako erropak keeztatuta geratzen zaizkidala. Ba al dago sua egitearen inguruko ordenantzarik?

► Baso edo baserrietan egiten diren erreturen inguruko ordenantza eta baimena Aldundiko Baso sailari dagokio. Herriko edozein baratze edo basotan sua egin nahi duenak basozainari jakinarazi behar dio, eta berak eamten ditu baimenak haize eta eguraldi baldintza egokiak baldin badaude. Udaltzainek ikusten badute erretura bat eta ikusten badute ez dagoela baldintza egokirik, baimena eskatzera joaten dira. Baina, berez, ez dago udal ordenantzarik.

DURUKO APARKALEKUA

? Edozeinek lortu ahal dau Duruko aparkamentura igoteko, Gomiztegi baserrixan pareko atia zabaltzeko giltzia? Ze baldintza bete bihar da edonora fan bihar da giltza hori lortzeko?

► Aipatzen duzun bide hori pribatua da eta "Gomistegiko pistaren erabiltzaile batzorde"-ak kudeatzen du. Bertan zehaztuko dizkizue erabiltzaile izateko bete beharreko baldintzak..

ARGINDARRAREN FAKTURA

? Herriko merkataria batzuei deskontua aplikatzen die Udalak argindarraren fakturan. Nori aplikatzen zaion eta zer nolako deskontuak diren jakin nahi nuke.

► Oñargi enpresa publikoa izanik, tarifa propioak jartzeko eskumena izan beharko genukeela uste dugu, eta, hala, oraingoz, Madrilen egindako negoziazioan lortu duguna izan da 10kw baino potentzia handiagoa ezarria duten erabiltzaileentzako deskontua (%12,5koa) lortzea. Ez gaude guztiz konforme, baina zerbait da.

Burujabetza energetikoaren bidean beste azterketa batzuk eskatu ditugu, guk ekoizten dugun argindarra gure esku dadin. Pentsatzen dugu oñatiarrok izan beharko genukeela argi tarifakazioa ezartzeko eskumena, eta, esan bezala, aztertzen ari gara, adibidez, Goiener bezalako enpresa baten bidez merkaturatzeko aukera.

TOKIKOARI GALDEZKA

Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera



Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK



%30 arteko diru-laguntzak

Irtenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es Tfno: 943 73 35 73 www.kuber.es

oposiziotik



Lourdes Idoiaga -EAJ

URAREN FAKTURA BERRIA

Bilduren udal gobernuak, EAJ-PNVk aurka eginda bere, ur kontsumoaren fakturatzeko sistema aldatzea erabaki du. Orain arte, ur-tarifak gehikorrek izan dira kontsumoaren arabera, 2014ko urtarilak 1etik aldiz, ohiko kontsumo-tarteez gain, prezioa etxebizitza bakoitzean errolatutako pertsona kopuruarekin lotuko da eta horretarako, batzabesteko kontsumo gisa 110 litro jarri ditu Bilduk biztanle/eguneko.

Gainera, “etxebizitza huts” kontsideratzen direnei, hau da, biztanlerik errolatuta ez duten etxebizitzei, tarifa zigortzailea ezarri diete irizpide hau ezarrita: “...kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa altuena izango da, hau da, goiko tartekoa (330 litro baina gehiago biztanle/eguneko), hau da, ohikoa dena baino 3 aldiz altuagoa”.

Ura alferrik gastatzearen aurka eta kontsumo arduratsuen alde gaude, baina ez gaude ados udal gobernuak proposatutako aldaketarekin, aurretik ez baita azterketa sakonik egin Oñatiko egoera eta errealitatea zein den jakiteko. Bilduk datu errealik izan gabe onartu du arau berria eta ez du hausnartu zein eragin izan dezakeen erabaki honek Oñatiko

Bilduk datu errealik izan gabe onartu du arau berria eta ez du hausnartu zein eragin izan dezakeen erabaki honek Oñatiko familiengan.

familiengan, ez eta salbuespen kasuak egon daitezkeen ere. Badira kontutan hartzeko kasuak, hala nola, adineko jendea zaintzeko momentu jakin batean berekin bizi diren familiartekoena, alokairuan dauden etxebizitza “hutsena” edota elkarrekin bizi diren eta oraindik errolda legezeko egin ez duten bikoteena, besteak beste.

Prozesu honetan Bilduk erakutsitako kudeaketa txarra dela eta, EAJ-PNVtik argi utzi nahi dugu uraren kontsumo arduratsua lortzeko modu hobekak daudela- ez zigortzaileak bakarrik- eta horregatik, arau berri hau indarrean ez jartzeko eta Oñatiko errealitatea zein den, arauak zein eragin izan ditzakeen, zein ondorio ekonomiko ekarri familiei eta eman daitezkeen egoera posible guztiak aztertzeko eta kontzientziazio kanpainak martxan jartzeko proposatu diogu Bilduri.

Baina udal gobernuak bere proposamen eta araua inposatzea erabaki du arauak izan ditzakeen eragin errealak ez ezagututa ere, Oñatiko herritar eta familiengan nola eragingo duen jakin gabe eta alde aurretik herritarrei abisatu gabe.

gobernutik



Leire Egaña - Bildu

AZPIEGITURA ERRALDOIEN AURREAN, ETORKIZUN IRAUNKORRA!

Hauteskunde programan ohartarazten genuen orduan nagusi zen lurralde antolaketak ez ziola erantzuten herritarren behar eta interesei. Ikusi besterik ez zegoen EAJk gidatzen zuen foru gobernuak eraiki nahi zuen errauskailua eta egun jaurlaritzan egonik eraikitzen jarraitu nahi duen AHTa. Argi eta garbi dago azpiegitura hauek, bizitzan ari garen krisi egoeran diru xahutzea izateaz gain, ez diela erantzuten tokian tokiko behar eta premiei.

Ingurumenaren gaia, zeharkako arloa izaki, esparru guztietan hartu beharreko erabakietan presente izango gurela hitz eman genuen. Hori horrela, hondakinen kudeaketa arloan, kontsumo basatiaren espiraletik ihesi, zaborraren gutxitzea, birziklatzea eta berrerabilpena helburu duen politika garatzen ari gara (birziklapen tasa %26tik %82 igotzea lortu delarik), ez azpiegitura bat helburu duen politika.

Planaren helburua desplazamendu mduen banaketa iraultzea da, egungo oinezko edo bizikleta desplazamenduak %37tik %53ra igotzea, garraio publikoaren erabilera %3tik %7ra igotzea eta garraio pribatuan egiten diren desplazamenduak %60tik %40ra jeistea

Argiteria publikoaren gaian bestalde, energia kontsumoa murriztea helburu duen ekintza-plana garatzen ari gara eta emaitza nabarmenak lortzen ari gara arlo horretan, %75erainoko energia kontsumoa aurreztuz.

Lurralde antolaketan arloan azkenik, herria oinezkoiei, bizikletei eta garraio publikoari lehentasuna emanaz antolatuko gurela adierazi genuen eta hori horrela izan dadin Mugikortasun Iraunkorrerako Plana egin dugu berriki; partaidetza, hausnarketa eta akordioak lortzeko prozesu gisa ulertuta.

Planaren helburu nagusia mugikortasun iraunkorra, segurua, zuzena eta eraginkorraren kultura sustatzea da. Horretarako oinezkoaren espazioa, segurtasuna eta oinezko desplazamenduak areagotu behar dira; lurralde antolamendua, hirigintza gestioa eta garraioen kostuak planifikatu; bizikletaren erabilpena eta bizikletan ibiltzeko bideen sorrera sustatu; aparkamendu eskaintza (ordutegiak eta tarifak, bertakoentzat zonaldea, merkantziak) kudeatu; bide sarearen hierarkizazioa, erregulazioa eta seinalistapena baketu; garraio publikoaren eskaintza, irisgarritasuna eta kalitatea hobetu.

Hiru eremu (hondakinak, energia kontsumoa eta mugikortasuna), eredu bakarra: ama lurra oinarri, helburu garbiak izango dituen etorkizun iraunkorra gure ondorengoentzat!

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 - OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • Publizitatea: publi@oinati.net



GUTUNAK

Gutunak ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorlaren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Hator hator neska-mutil etxera!!!

Jose Mari Zugasti

Martxoaren 22a, larunbat goiz euritsua. Eguerdia heltzearekin batera, argi izpi batek aurre egiten dio eguraldi ilunari Euskal Herri osoan. Albiste zoragarria, bolo-bolo dabil komunikabide eta sare sozialetan. Euskal iheslari politikoen kolektiboak, gatazka politikoen konponbidean beste urrats ausart bat egitera doala irakurtzen dut..

Nere barnean poztasuna da nagusi. Euskal iheslari politikoen kolektiboa osatzen duten kidegoaren %20ak, bere sorterrira itzultzeko urratsa egitera doala irakurtzeak, poztasunerako eta ausnarketarako nahiko arrazoi ematen bait dit.

Euskal iheslarien kolektiboa oso anitza eta zabala da. Arrazoi desberdinak medio, azken hamarkadetan, ehundaka euskal herritarrek beraien sorterrira utzi eta alde egiteko hautua egin dute. Bizi baldintza gogorak pairatu behar izan dituzte, Desagertuak, hildakoak... izan dira. Argi dagoena, gatazka politikoen ondorio direnez, gatazka politikoen konponbidean ere subjektu aktibo izan behar dutela da..

Garaia da ,konponbide garaia da. Soluzio demokratikoa emateko irekia den prozesua bultzatzeko, beraien ekarpena egin dute. Iheslari guztiak Euskal Herrira eta beraien etxetara zentzuzko dendora batean itzultzeko beraien bideorria aurkeztu dute: (<http://www.kazeta.info/harhitza/sorterritik-sorterrira-lepoan-hartu-eta-segi-aurrera/>)

Baina tamalez oraindik ere, frantziar

eta espainiar estatuak ez daude konponbiderako parametrotan. Beraz egin duten mugimendua Euskal Herriari begira egin dute. Gu gara beraien arnasmune. Gu gara beraien babes eta arnas. Iheslariak konponbidearekiko hartu duten konpromisoak eta Euskal Herrian gehiengoaren nahiak bat egiten dutenez, gatazka politikoen korapiloak askatzen joateko aukerak, parez-pare ditugu.

Ez izan dudarik esfortzuak merezi izango duela: urrats batek ondorengo urratsa dakar eta denon artean herri babesa indargune izanik, emango ditugun aurrera pausoak geldiezinak izango dira.

Aske izateko joan ziren eta aske izateko itzultzen hasi dira, den-denak etxean izan arte. Denok izan gaitezen libre!!!

PNVk tranpa egiten du

Igor Tomé

Aurreko alean Oñatiko PNVk idatzitako gutunaren harira idazten dut gutun hau. Egia esan, ez zait aproposa iruditzen duela 11 urteko trapu zaharrak ateratzen hastea eta, beraz, ez dut Oñatin burutu den kanpainarekin bat egiten. Hala ere, lotsagarria iruditzen zait oraingoan ere ekintza hori ezker abertzaleari egozte. Asko dira gure herrian EAJrekin kritikoak diren sektoreak, eta ez da bidezkoa, zuen interes politikoa direla medio, errua beti berdinari botatzea. Oposizioan ere duintasun minimo bat eduki behar da.

Hala ere, garbi daukat zuen aurreko asteko adierazpenen atzean helburu politiko jakin batzuk daudela. Zuek nahi

duzuen kritika politikoa ekiditea da. Edozein kritika politiko "errespetuaren" eta "etikaren" eremura eramaten duzue, edukiari ihes eginez. Zuen erabaki politikoei sortzen dituzten ondorioen aurrean inpunitate osoa eduki nahi duzue, horretarako eztabaidak beste toki batzuetara desbideratuz. Noiz hitz egingo dugu arazoan muinaz?

Baina zuen helburuak oraindik haratago doaz. Kanpaina horren "moduak" gogor salatzen dituzue. Zuen helburua kale kanpainak (kartelak, pegatinak...) kriminalizatzea da. Hau da, guztiok aukera berdintasunean aurkitzen garen gunek bakarra (hots, kalea) deuseztatu nahi duzue. Guztiz logikoa iruditzen zait hori bilatzea, komunikabide gehienak zure esanetara daudenean. Ba, zuen baliabideak ez dauzkagunok gure bideak aurkitu behar ditugu, eta kalea horietako bat da. "Irainei" dagokienez, ez dut uste pegatina horietan agertzen dena zuek ETBn botatzen dituzuenak edota azkeneko hauteskundeetan atera zenituzten panfletoak (bidegurutze-arenak) baino gogorragoa denik. Hori bai, zuen pozoia sofistikatuagoa da..

Ahoa "demokrazia" hitzarekin betetzen duzue, baina ideien konfrontazio demokratikoa da hain zuzen ere beti ekiditen duzuen. Eta, horretarako, askotan barregarriak izatera iristen diren trikimailuak erabiltzen dituzue. Utzizue eztabaidak distorsionatzeari eta hasi zaitezte horrenbeste miseria sortzen ari den zuen gizarte eredu nola defendatu pentsatzen. Hori bai, parean izango gaituzue.



Dispersioa: errepidea, kilometroak, arriskua...

Ana Mari Markuleta, SORTUko kidea

Euskal presoen ehunka senide eta lagunek errepidean makina bat kilometro egiten dituzte astebururo. Etxeraten arabera, familia bakoitzak, batez beste, 1.200 kilometro egiten ditu astero senide presoak ikustera joateko eta asteko 400 euroko diru gastua dakar horrek, batzaz beste, familia bakoitzarentzat. Istripuak dira, baina, hainbeste joan-etorriren ondorioz senide eta lagunak jasan ditzaketen ondorio gordinenak. Eta guk ere badakigu zer bait horri buruz...

Martxoak 22an, Xabier Ugarte preso oñatiarraren bikotekideak beste bi presoren senideekin batera istripua izan zuten Topaseko (Salamanca) kartzelara bidean. Beraz, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu Xabier eta bere senide eta lagunei.

Giza eskubideen urraketa eta mendekuan oinarritutako espetxe politika gizagabe eta krudela da istripu honen erantzule zuzena. Aurten 25 urte beteko dira dispersioan oinarritutako espetxe politika sistematikoki martxan jarri zenetik eta ordutik 16 senidek utzi dute bizia espainiar eta frantziar estatuetako errepideetan. Azkena, 2007ko abenduaren 25ean hil zen Natividad Junco gure herrikidea, Teruelgo espetxetik senide bat bisitatzetik zetorrela auto istripua izan eta 3 egun hospitalean larri egon ostean hil zena.

Dispersioa diseinatu zuten alderdi politikoei, iraganari buruzko autokritika egin beharrean gaudela eskatzen diguten bitartean, dispersioak suposatu duen sufrimendu guztiaren aurrean isiltasuna da nagusi. Inori azalpenak eskatzen ibili beharrean, garaia da beraien ardurak aitortu eta duela 25 urte ekin zioten diseinari amaiera emateko urratsak egiteko.

Egoera hau beti izan baldin bada bidegabea, berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen

OHAR ETA DEIALDIAK

► BENIDORMera PAKE-LEKU elkartearekin

Pake Leku elkarteak hamar eguneko bidaia antolatu du Benidormera. Maiatzaren 12tik 21era izango da. Izena emateko egunak apirilaren 7a eta 14a izango dira, arratsalde, 18:00-20.00. Bidaia ordaintzeko azken eguna apirilaren 30a izango da, eta maiatzaren 5 eta 7an txartelak banatuko dira.

► EMAKUME ABERTZALEEN BATZAKOEI OMENALDIA

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, Oñatiko EAJk omenaldia egin zien Emakumeen Abertzaleen Batzako kideei. Alderdi jeltzalearen inguruko emakumeek 1922an sortu zuten erakunde hau. Gerra garaian eta ondorengo urteetan asko sufritu behar izan zuten, eta lan handia egin zuten euskararen eta euskal kulturaren transmisioan, besteak beste. Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak ere parte hartu zuen omenaldi ekitaldian.



Argk.: J.B. Aranzabal

► 81ekoen KINTTADIA

Mariatzaren 24an, 81eko kinttuok (1961eko irailaren 1etik 1962ko abenduaren 31ra arte jaixotatuak) geure eguna ospatuko dugu. Egun horretarako programia honako hau izango da:

- 19:30ttan Agustinoetan hildako kinttuen aldeko mezia.
- 20:15ettan Izarraitz tabernan poteuari hasieria emungo xaugu.
- 21:30ttan ETXEBERRIA jatetxian afarixa.

Egun horretan zure garaiarekin elkartu gura badozu, emuizu izena iturraran@euskalnet.net edota akelena@euskalnet.net posta elektronikoetara idatzita edota 665723709 (Juan Mari) - 645732412 (Jabi) telefonoetara dijar egindda. Mariatzaren 15era arte izena emuteko aukeria izango dozue. ANIMATU!!!

da gure herrian zabaldu den errealtate berrian. Gauzak honela, salbuespeneko espetxe politika honekin eta dispersiorekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Dispersio eta espetxe politika honekin amaitzeko

garaia da. Aski da esateko unea da.

Horretarako, eskaera hau luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugun indarrek bat egitea eta kalera ateratzea, sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

HARITZA

- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96

BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

POLITIKA, POLITIKERIAK ETA ALDERDIKERIAK

Inkestek diotenari erreparatzen badiogu, politikariak eta alderdi politikoak, beste erakunde eta instituzio batzuekin batera, ez dira leku onian geratzen, izan ere inkesta gehienetan azken bi lekutan agertzen dira jendearen onarpenean. Ikusitakoa ikusita, ez dela harritzekoa esan dezakegu. Baina horrek baditu bere eragin larriak eta kaltegarriak gizartearentzat, politika eta politikarekin zerikusia duen guztiaren prestigioa eta izen ona galtzea, besteak beste.

Politika hitza bera, eta horrekin identifikatzen dena, gaur egun profesionali edota alderdiek egiten dutenari oso lotuta dago, eta aspaldian ikusten ari garen zenbait politikari eta alderdien jokabidea dela eta, politikaria eta alderdikaria gehiegi dagoela esan dezakegu. Eta, jakina, hori horrela izanda motibo ugari dago gizartearen urruntzea ulertzeko, bereziki beste kultura politiko eta denbora historikotik datozen gazteen aldetik ematen ari dena.

Guzti honek egoera oso larriara eramaten ari du kudeaketa publikoa eta berarekin zerikusia duen guztia. Sarritan entzuten da herritarren artean hori ez dela nire ardura, horretarako aukeratzen ditugula noizbehinka pertsona batzuk eta beraien erantzukizuna dela, ni ez naizela politikoa, hori politikoak egiten behar dutela, etab. Baita bere, politikan aritzea aberasteko egiten den zerbait dela, guztiona den zerbaitez aprobeztatzeko daudela, etab.

Politika, arazo, gai eta ondasun publikoen kudeaketa bezala



Alderdiak eta sindikatuak beharrezkoak dira, baina asko aldatu behar dute iraun nahi badute. Politika egin daiteke beste era batera, hainbat erakunde, gizarte mugimendu, gizarte kolektibo eta abarren bidez



Luis Guridi

ulertzen badugu, horien aurrean hartzen diren erabakiak politikoak dira, denak. Denok daukagu iritzi politikoak. Uste badut hau honela egin behar dela eta ez bestera, ba iritzi politikoa da; uste badut hezkuntza edota osasun sistema publikoa edo pribatua izan behar duela, ba erabaki politikoa da; zabor sistema baten edo bestearen alde bagaude, garraio sistema bat edo bestea defendatzen badut, ba iritzi politikoak dira. Gero alderdiek esango dute beraiena, baina hori beraiena da, eta beraiena bakarrik ikusten badute, ba alderdikarian erortzea oso erraza da.

Publikoa denaren kudeaketa gardena eta zuzena baieztatzea eta defendatzea ezinbestekoa da, gaur egun honek izugarrizko garrantzia dauka edozein tokiko garapenaren teoria eta praktikan, baliabide naturalak, pertsonen ahalmenak (giza kapitala), edota finantza kapitalarekin maila berdinean.

Gaurko bitartekaritza eta ordezkapen sistemak zaharkituak eta krisian aurkitzen direnez, beste bide batzuk jorratu beharrean gaude. Alderdiak eta sindikatuak beharrezkoak dira, baina asko aldatu behar dute iraun nahi badute. Politika egin daiteke beste era batera hainbat erakunde, gizarte mugimendu, gizarte kolektibo, eta abarren bidez. Edota hainbat arazo publikoren aurrean iritzia edota botoa emanez. Badaude medioak, teknologiak. Baina horretarako jendeak

ikusi behar du zer esana baduela kudeaketa horretan, herritarren iritzia entzun eta aintzakotzat hartzen direla.

BAKARRA, HANDIA ETA ASKEA

Nik kontzientzia dudanetik nahikoa surrealista izan da beti "gurea" deritzoten estatu hau. Ez estatua bera, noski, bertan ematen diren gertaerak baizik. Baina azkenaldian surrealismoak hartu du berriz ere surrealismoa, paranoiaren postmodernismora iritsiz, jada ezin da gehiago asmatu, ezinezkoa da.

Hil zaigu munduko alkaterik onena, egin dugu denok negar. Izan du Euskal Herrian azken egunetan lan istripuz hil den edozein langilek bizitzan izango lukeen agurrik beroena baino hamar mila milioi aldiz beroagoa. Baina langileek ez dute Athletic UEFA-ra eramaten.

Joan zaigu ere Suarez presidente jauna. Espainian, demokraziaren burua (askoren hitzetan). Honen omenez ere negarrak soberan. Inork ez du ezer aipatu 1976an Gasteizen bere mandatu pean (Fraga Alemanian zegoen egun horietan eta Suarez utzi zion ardura guztia) poliziak hil zituen lau langileen inguruan. Hori agurraz gain, "Barajas"-eko aireportuaren izena eman diote, orain "Adolfo Suarez Madrid-Barajas" aireportuan hartuko ditugu hegazkinak.



Xabi Pascual



Batzuk erradikal extremista batzuk dira, eta besteak estatuak manipulaturako panpinak. Baina zein da egun horretan Madrilen zabaldu nahi zen mezua?

Izen aldaketa honek milioi bat euro inguruko kostua izan du.

Baina hil direnak azken finean joan dira, eta ez dira itzuliko. Bizirik gaudenok daukagu mundu honekiko ardura, Madril zaintzen ari diren poliziak bezala eta polizia izateko ezaugarri guztiak dituzten beste "txapeldun" batzuk bezala ere. Denok dakigu zer gertatu zen: ez dakit zenbat atxilotu eta ez dakit zenbat polizia zauritu (oso ondo portatu ziren gainera beste batzuetan nola ibiltzen diren ikusita, goiko agindua?). Batzuk erradikal extremista batzuk dira eta besteak estatuak manipulaturako panpinak. Baina zein da egun horretan Madrilen zabaldu nahi izan zen mezua? Non geratu da? Ez al da hori agian erradikalen eta poliziaren eta gu guztion gainetik (edo daudela uste dutenek) nahi zutena? Mezua ezkutatu eta guzti hau herria eta estatuko indar polizialen arteko borroka huts batean bihurtzea?

Horrelakoa da inposatu diguten estatua, bakarra, handia eta askea.

LASTERTASUN HANDIKO TRENA

Gaur trena hartu dut; halako batean, gura barik, bizitzan atzera eraman nau. Beti iruditu zait trena bizitzaren metafora egokia. Batzuetan ematen du guk bidaia txartela aukeratu, hartu bai, baina gerora, geu ohartu ere egin gabe, guregandik harago dagoen eta haren aurrean ezindu garen indaritsuak markatu egiten duela gure **bizitzaren norabidea**. Eta hortxe goaz, zurrumbiloan sartuta, lastertasun handiko trenean, azkar-azkar, irmo, gure eguneroko zereginetan, serio demonio gure helburu txiki eta handien bila; bitartean, lantzean behin, oharkabean leihatilatik kanpora begiratu, eta arinaren arinez inguruan gertatzen ari diren 'txikiei' ia-ia antzik eman ez, gu aurrera, aurrera goaz, progres(i)o etengabea kontu garrantzitsuekin okupaturik eta **pre-okupaturik**. Nora, zergatik eta zertarako bidaia baina?

Jomugaren grinak jota, helburuak jainkotzera ere iristen gara, bidaia-lagunak, geldione/geltokiak, inguruak... ahaztuz; eta hara non, egun tamalgarri batean (edo zoragarri esan beharko genuke?), bidaia ez gaituela asetzen



Juankar Olaeta



Jomugaren grinak jota,
helburuak jainkotzera
ere iristen gara,
bidaia-lagunak,
geldiune/geltokiak,
inguruak... ahaztuz

amesten dugu, baina hobe ametsei jaramonik ez egitea, jakina, errealistak izan behar dugu-eta. Trenak ezin du atzera egin, aitzin-aitzinka arrapaladan doa, **Josean Artzek** bere olerki batean ironiaz dioen lez, lasterka, heriotzara nor lehenengo iritsi norgehiagokan; bizitza serio-irrigarria? serio-patetikoa?

Bitxia da, trenean nindoala **gurasoekin** eta **seme-alabekin** gogoratu egin naiz; gurasoekin bizi gabe utzi ditudan eta egunen batetik aurrera biziko ez ditudan esperientziak eta momentuak etorri zaizkit gogora, eta seme-alabekin zergatik? Arrazoi berberagatik!

M. Heideggerrek zioen gizakia dela egunen batean hil egingo dena dakien izaki edota animalia bakarra, animalia metafisiko bakarra alegia ("**Gizakia, heriotzarako izakia da**"). Nago on egingo ligukeela trena geldotu eta honetaz sarritxoago gomuta egiteak, hartara, seguruenik, bizi-bidaiaaren aukerez, opariez, distiraz... zentzuaz, kontzientzia eta intentsitate handiagoz gozatu ahal izango genuke, ... helmuga-geltokira di-da batean berandu heldu baino lehen.

SOLTERO ALA SOLTERON?

Aurreko larunbat gau batean, ni eta beste hiru lagun kalean pote batzuk hartzen ginela, hauetako batek esan zigun, kanpoko lagun batekin hizketan aritu zela; alegia, lagun honek esan zion, 35 urtetik gora jada "**solteron**" izatera pasatzen zarela. Eta gu, gure kezkak gainean, soltero eta "solteron" artean ze ezberdintasun dagoen eztabaidan hasi ginen.

Kanpoko lagun honek esan omen zuen, soltero denak, oraindik, bikotegaia aurkitzeko gogoarekin, kalera juergan irten eta ea zerbait "**pillaitten**" duen esperantzarekin ibiltzen dela; 35 urtetik gora berriz, esperantza hauek galduta, mutil edo neska "zahar" topikoan erortzen dela.

Ez dakit kalimotxo eta garagardo aparren artean esandako txiste bat besterik ez ote zen izan. Hala eta guztiz ere, arrazoi pixka bat baduela onartu nahi izan dut.

30 urte arte oraindik gazteak garela pentsatzen dugu. Zimur eta ile arteko kanaren



Gizarteak ezarri
digu kasu honetan
ere, edade limite
buru bariko honen
konplexua



Amaia Aranzeta

batzuk kenduta, oraindik "yogurines" batzuk garela. 30 urtetatik 35 urtetara berriz, beste fase batean sartzen gara; gaztetasuna galtzen goazela ohartu eta atzera bueltarik ez duen heldutasunean sartu garela ikusita. 35 urtetatik gora berriz, gaztetasuna guztiz galduta, izpiritu libre bat izandako egun horiek faltan botaz, bizitzako benetako erronkan buru-belarri sartu garela ohartzen gara. Eta soltero jarraitzen duen kuitaduak, gizarteak ezarritako beste topiko batean murgildu dela ikusten du: soltero izatetik "solteron" errukigabe bat izatera. Gizarteak ezarritako baldintza ugari hauen artean bait dago, soltero eta "solteron" artean jalgi den ezberdintasunaren xedea. Norberak pentsatu orde bere bizitzarekin zer egin, gizarteak ezarri bait digu kasu honetan ere, edade limite buru bariko honen konplexua.

Soltero edo "solteron"? Norberak epaitu dezala bere bizitzari dagokiona.



- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, beheka • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

Belaunaldi arteko ELKARTASUNA



Adineko pertsonen bizi-kalitatea eta gizarte parte-hartzeari buruzko hitzaldi zikloa antolatu du Udalak

Pertsona nagusien kolektiboak gero eta garrantzia handiagoa du gure gizartean. Bizi-itxaropena luzatuz doan neurrian, pertsona nagusien proportzioa gero eta handiagoa da, eta, beraz, oso kontuan hartzeko faktorea da. Alde batetik, gizatalde horren bizi-kalitatea bermatzeko beharko diren zerbitzu eta azpiegituren gaineko hausnarketa egin behar da.

Bestetik, garbi dago pertsona nagusien kolektibo zabal horretan izugarritzko altxorra eta potentziala dagoela. Bizi-esperientzia, jakinduria eta gaitasun handiko gizon-emakumeak dira, ekarpen handia egin dezaketenak, eta hor ere erronka handia dago; hau da, aukerak eta bideak jartzen asmatu behar dugu, pertsona nagusiek gizartean parte hartzen eta aportatzen jarraitu ahal izan dezaten.

BELAUNALDI ARTEKO ELKARTASUNA

Udal gobernu taldeak ere badu kezka gai hauen inguruan. Hala, 2011-2015 urtealdiko helburu estrategikoen artean, belaunaldi ezberdinen arteko ekimenak sustatzea dauka jasota. “Gaurko gizartea oso polarizatuta dago” adierazi digu Mikel Biain alkatea; “adineko jendea bere aldetik dabil, eta gazteak beste alde batetik, eta gure ustez hor galera bat dago, adineko jendeak duen bizi-esperientzia eta jakinduria ez delako transmititzen, eta hori ez da unibertsitatean ikasten. Beraz, erronka handia dugu hor; denok garbi ikusten dugu landu beharreko arlo bat dela; kontua da, nola bideratzen dugun.

Ilido horretan, Oñatiko adineko pertsonen dituzten beharrak eta gabeziak ezagutzeko asmoz, ‘BIGIRA’ izeneko programa jarri zuen martxan udalak iaz. Euskal Herriko Psikologia fakultateko ‘Bilaka’ taldeko psikologoaren laguntzarekin, elkarrizketa pertsonalizatua egin zitzaion 75 urtetik gorako

herritarrei. Bakardade edo bazterketa arriskuan dauden herritarrak detektatu, eta zahartzaro aktiboa sustatzeko aukerak aztertzea zen helburua. Diagnostikoa eginda dago, eta orain ekintza plana definitu behar da.

BIZITZA INDEPENDIENTERAKO PLANA

Udal gobernu taldearen beste helburuetako bat pertsona nagusien Bizitza Independenteterako plana sustatzea da, eta horren barruan, gaur egungo beharrei erantzungo dieten tipologia berriko etxe edo egoitzak sustatzea. “San Martingo urbanizazioaren aprobeitxamendutik jasotako ia milioi bat euroko diru-partida bat daukagu, ekipamendu sozialetan inbertitzeko” adierazi digu alkatea. “Hasiera batean, apartamentu tutelatuak egitea zen asmoa, baina proiektua gauzatu baino lehen, uste dugu beharrezkoa dela azterketa sakon bat egitea, pertsona nagusien beharrak eta eskariak entzun, eta beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko, Oñatiko ezau-garrietara ongien egokituko den proiektua definitzeko. Eta horretan ari gara EDE Fundazioaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin. Uda parterako proiektua definituta egotea espero dugu”.

GOGOETA EGITEKO HITZALDI ZIKLOA

Hausnarketa sakona eskatzen duten gaiak dira eta, helburu horrekin, hitzaldi zikloa antolatu du Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Zahartzaro aktiboa eta pertsona nagusien parte-hartzea eta bizi-kalitatea bezalako gaietan adituak diren hiru hizlari izango ditugu gure artean (ikus egitaraua). Herritarrak aktibatu eta gai hauen inguruko hausnarketa herritarren artean zabaltzea da helburua. Hitzaldiak irekiak dira. Herritar guztiak daude gonbidatuta belaunaldien arteko elkartasunaz gogoeta egitera.



MIKEL BIAIN / Alkatea

“ Adineko jendea bere aldetik dabil eta gazte jendea beste alde batetik, eta gure ustez hor galera bat dago, adineko jendeak duen bizi-esperientzia eta jakinduria ez delako transmititzen. Erronka handia dugu hor.

HITZALDI ZIKLOA**APIRILAK 7, ASTELEHENA****‘ZAHARTZE AKTIBOA. BELAUNALDI ARTEKO BIZI-KALITATEA ETA ELKARTASUNA’**

Maria Isabel Genua Goena
Matia Fundazioko arreta farmazeutikoko arduraduna

APIRILAK 9, ASTEAZKENA**‘ADINEKO PERTSONEN PARTAIDETZA-PLAN BATERAKO GAKO SOZIAL ETA KULTURALAK’**

Elisabet Arrieta Aranguren
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Hezkuntza zientzien fakultateko dekanordea

APIRILAK 10, OSTEGUNA**‘OSASUNEZ ZAHARTU. ARRAKASTAZ ZAHARTU’**

Javier Yanguas Lezaun
Psikologia biologikoan eta Osasun arlokoan doktore. Helduen hezkuntzan aditua

Hitzaldiak Sancti Spiritus Unibertsitatean izango dira, arratsaldeko 19:00etan

ELISABET ARRIETA / EHUko irakaslea**“Partehartzea ezin dugu pertsonen borondatearen esku utzi; sistematizatu egin behar dugu”**

Apirilaren 9ko hitzaldiko hizlaria izango da Elisabet Arrieta. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da eta azken urte hauetan adineko pertsonen gizarte-partehartzearen gaia ikertzen ari da. Bere ustez Plan Integral bat diseinatu beharra daukagu, adineko pertsonen partehartzea sustatu eta bideratzeko, eta horretan dihardu azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiekin elkarlanean.

Arrietaren ustez, gaurko gizartean izugarritzko indarra edo potentziala dago 63-65 urtetik gorako gizon-emakumeen artean. Interes ugari, bizi-esperientzia aberatsak, formazio maila handia, eta aportatzeko gauza asko dituen kolektiboa da, eta horretaz jabetu eta kontzientziatu beharra daukagu.

Zoritxarrez, ordea, lana egiteari uzten diotenean, pertsona horietako asko gizartetik desagertu egiten dira; ikustezin bihurtzen dira eta ahotsik gabe gelditzen, eta hori galera inportantea da gizartearentzat, Arrietaren ustez. “Erronka handia dugu hor, eta horregatik diot, adineko pertsonen partehartzea sistematizatuko duen Plan Integral baten beharra daukagula. Partehartzea ezin dugu pertsonen borondatearen esku utzi; planifikatu egin behar dugu, urrutirago joateko. Askotan, adineko jendeak informazio falta izaten du, eta horregatik esaten dut sistematizatu egin behar dela partehartzea”.

Adineko pertsonen kolektiboa oso anitza da, baina, oro har, gauzak aportatzeko eta gizartean parte aktibo izaten jarraitzeko gogoz ikusten du jendea Arrietak. “Harro eta oso pozik ikusten dut jendea, gizartearekiko konpromisoak norbearen bizitza aberastu egiten duelako, eta horrek satisfakzio handia ematen du”.

JAVIER GALARZA / Pake-Lekuko presidentea

Oso interesgarria da Udalak antolatu duen hitzaldi zikloa. Belaunaldien arteko harremana eta adineko pertsonen bizi-kalitatea gai interesgarriak dira. Nik uste dut jende gazteak asko ikas dezakeela pertsona nagusiengandik, eta alderantziz ere bai. Elkarlan horretarako bideak bilatu behar dira.

Gu, herriko jubilatuen ordezkari bezala, Udalak antolatzen dituen foro guztietan parte hartzen dugu, eta anbulatorioarekin ere ari gara elkarlanean, osasun gaietan. Pake-Lekun antolatzen diren hitzaldi, ikastaro eta aktibitate sozialetan partehartzea ona izaten da, oro har, baina gehiago dira oraindik etxean geratzen direnak.

JOSE ANTONIO AMUNDARAIN / ‘Duintasuna’ elkarteak

Gure gizartean agintzen duen sistema kapitalistak eta hango eta hemengo gobernuek sistema hori mantentzeko egiten dituzten lege arauak egoera eramanezin honetara ekarri gaituzte. Gaur arte garrantzitsuenak ziren Pentsioetako edukien parte handi bat erreformatu dute: lan bizitza luzatu, pentsioak izoztu, pentsioak aktualizatzeko sistema aldatu, alargun eta umezurtzen pentsioak Gizarte Segurantzatik atera, botikak beriz ere ordainarazi... Pentsio publikoaren eskubidea bermatu beharra dago, eta horretarako beharrezkoa da indarrak batzea. Duintasuna elkartearen horretan dihardugu, eta prest gaude elkarlanean aritzeko interesa duten guztiekin.

RAFAEL KORTABARRIA / ‘Nagusilan’ elkarteak

1996tik nago Nagusilan elkartearen. Aiton-amonei konpañia egin eta laguntzea da Nagusilan elkartearen boluntarioen egitekoa. Asteaz bi orduko dedikazioa eskatzen du, gutxi gora behera. Nire esperientziatik esango nuke, oro har, jubilatua gutxi inplikatzeko direla gizarte lanetan; dauden boluntarioak oso fidelak dira, baina gutxi daude. Gainera, laguntasuna eskatu ere, oso jende gutxi eskatzen du. Ez dakit lotsagatik den, edo zergatik. Seguruenez egongo da laguntza beharrean dagoen jendea, baina kosta egiten zaigu asko.

Umerezko biltegitik jasoko dute ura San Martingo bizilagunek, presio baxuaren arazoa konpontzeko

► Apirilaren 28an hasiko dira ur-hornidura sarea ezartzeko lanak eta lau edo bost astez luzatuko dira.

► Bitarte horretan itxita egongo da Murgiako bidea, San Martinetik Umerez baserrirainoko tartean.

Garai batean Oñatiko herrigune osoa urez hornitzen zuen Umerezko ur biltegia martxan jarriko dute berriz ere, San Martingo auzune berriko hainbat etxetan duten ur presio baxuaren arazoari konponbidea emateko.

Udalak 2006an onartu zuen San Martin sektoreko urbanizazio proiektua, eta bertan aurreikusten zen auzune

berriaren ur hornidura Umerezko biltegitik egitea. Horretarako hoditeria berria sartuko zen ur depositotik auzoraino.

Hala ere, San Martingo lehen etxeblokeak eraiki zirenean, herriko ur hornidura sarera lotu ziren. Behealdeko etxeetan ez zen ur presio arazorik antzeman eta, ondorioz, Umerezko

depositorako hoditeria sartu gabe, etxe berriak jaso ahala herriko sare nagusira lotzen joan ziren. Baina auzunearen goialdeko etxebizitzetan ur presio arazoa sortu zen; ura behar besteko indarrez iristen ez zitzailea salatu zuten hasieratik bizilagunek.

Konponbide moduan, uraren presioa handitzeko ponpak jarri zituzten



etxeetako atarietan, baina horiek ere ez dira nahikoa izan.

Auzotarrek sarri jo dute Udalarengana eta eraikuntza enpresetara soluzio eske, eta, beraz, arazoari behin betiko konponbidea eman asmoz, San Martingo etxaldearen ur hornidura Umerezko biltegitik egitea erabaki da, hasierako proiektuan jasotakoaren arabera.

Horretarako, 1998az geroztik geldi egon den Umerezko ur biltegia martxan jarri, eta 350mm.-ko diametroko hodia ezarri beharko da depositotik San Martin guneraino, ezkerreko argazkian ikusten den moduan. San Martinetik Umerez baserrira doan bidearen ertzetik eramango dute hodia, San Martin guneko ur hornidura sarearekin bat egin arte.

Umerezko depositora Urrutxuko biltegiako ura iritsiko da, Tokilloko sarea baliatuz, Tokilloko eta Umerezko ur biltegiak lotuta baitaude; beraz, San Martingo etxeetara, herriguneko gainerakoetara bezala, Urkuluko ura iritsiko da; hau da, gaur egun jasotzen duten kalitate bereko ura jasoko dute, baina presio handiagoarekin.

Ehun urteko biltegia

Umerezko ur biltegiak ehun urte pasa ditu. Urdanetako argindar zentralarekin batera eraiki zuten, eta urte askoan Oñatiko herrigune osoa hornitzeko erabili izan zen, Urdandieta eta Aginaga aldetik jasotzen zuen urarekin.

Orarin dela 55 urte bikoiztu egin zen depositoarene edukiera, herriaren ur beharrei erantzun ahal izateko. Gaur egun 1.000m³.-ko edukiera dauka.

Urrutxuko ur biltegi berria eraiki zenean, Umerezko depositoa alboratuta geratu zen, eta orduz geroztik Urrutxutik banatzen da herrigune osora (auzo batzuetara salbu) Urkuluko ura.



LAU EDO BOST ASTEKO LANA

Apirilaren 28an hasiko dira hodi berria sartzeko lanak, eta lau edo bost astez luzatuko dira. Hau da, ustekaberik ez bada, maiatza bukaerarako amaituta egotea espero da.

Lanek dirauten bitartean, Murgia auzoko bide-zati hori, San Martinetik Umerez baserrira doana, trafikorako itxita egongo da, bidea estua delako eta

segurtasuna bermatzerik ez dagoelako. Beraz, denbora tarte horretan Murgialdaitik bueltan ibili beharko dute auzotarrek.

Ur hodia ezartzearekin batera, Umerezko depositoa bertan ere hainbat lan egin beharko dira, hainbat urtez zerbitzutik kanpo egon den biltegia berri eta martxan jartzeko.

San Martin guneko Plan Partzial berriak ika-mika piztu du Udaleko alderdien artean

Martxoko aldizkarian aipatu genuen, San Martin guneko Plan Partziala aldatzeko hitzarmena onartu zuela udal gobernu taldeak. Hitzarmen horren arabera, San Martinen eraikitzeko falta diren 83 etxebizitza libreen ordeztu, 132 eraiki ahal izango dituzte (49 gehiago), baina txikiagoak, eta, beraz, eraikigarritasun osoa aldatu barik. Horren trukean, Udalak baldintza batzuk ezarri ditu; besteak beste, eraikiko diren 132 etxebizitzak prezio mugatukoak edo tasatuak izatea (220 mila euro ingurukoak). Horrez gain, besteak beste, San Martingo urbanizazio publikoa amaitzea esijitzen die Udalak enpresa sustatzaileei.

EAJren salaketa

EAJren udal taldeak salatu du Bilduk hartutako erabakiak ez duela betetzen babes ofizialeko etxeen (BOE) araudia. Jeltzaleen ustez, San Martinen eraiki beharreko BOE kopurua kalkulatzeko ez da kontuan hartu behar eraiki den azalera, etxebizitza kopurua baizik. Beraz, 49 etxebizitza gehiago eraikitzea adostu bada, legea aplikatuz, %65a (32 etxe) babes ofizialekoak izan beharko ziren.

“Beraz”, gaineratzen du EAJk, “Bilduren kudeaketa txarraren ondorioz, 32 familia kaltetuta aterako dira, %70 gehiago (90.547 euro gehiago) ordaindu beharko dutelako etxeagatik. Horrek esan nahi du, Bilduk uko egiten diola 2,9 milioi euroko gizarte aurrezki bati”.

EAJk dio bere proposamena askoz ere sozialagoa dela, eta oñatiarrentzat askoz mesedegarriagoa. Jeltzaleen ustez, San

Martinen eraikitzeko falta diren 132 etxeetatik 32 babes ofizialekoak izango lirake (129.352 €-ko prezioarekin, bataz beste) eta gainontzeko 100 etxeak 219.899 eurotan salduko lirake (BOE x 1.7).

Bilduren erantzuna

Gobernu taldeak gezuratu egin du arau-hausterik dagoenik hitzarmenean. “Oñatiko Arau Ordezkoak eta San Martingo Plan Partziala 2006ko apirilean eta uztailan onartu ziren, eta, beraz, urte bereko irailean onartu zen Lurzoru eta Hirigintza legearen aurrekoak dira. Beraz, estandarra aplikatu ahal izateko, eraikigarritasuna handitu behar da, eta San Martinen ez da aldatuko.

Bilduk ukatu egin du EAJren proposamena sozialagoa dela. “Zer da sozialagoa, 32 etxebizitza babes ofizialekoak eta beste 100 prezio librekoak (EAJren proposamena), edo 132 etxeak prezio mugatukoak izatea?” galdetzen du gobernu taldeak; “orain badakigu 132 etxe horiek zein prezioetan salduko diren, eta EAJren proposamenarekin 100 etxe merkatuko prezioen menpe geratuko lirake”.

Bestalde, gogoratu du Bilduk, San Martin guneko lursailak zaharren egoitzaren esku utzi zituela herritar batek, eta EAJk lur horiek desjabetu eta enpresa ekimen pribatura biderau zituela. “Kudeaketa soziala al da hori?”. EAJ gobernuan egon zen azken 8 urtetan, etxe hutsak beste etxe berri (700 inguru) eraiki zirela dio Bilduk. “Zein helburu sozialekin?” galdetzen du gobernu taldeak.

Langabetuak kontratatzen dituzten enpresa txiki eta ertainei dirulaguntza emango die Udalak

- Kontratatzen duten herriko langabetu bakoitzeko 1.000 euro jasoko dute.
- Jardun osoko kontratua izan beharko da, eta sei hilabetekoa, gutxienez.

» **Emakumeak edo iraupen luzeko (12 hilabete) langabetuak kontratatzeagatik %30eko dirulaguntza gehigarria jasoko da.**

‘Enpresa berrien sustapena eta langabetuen kontrataziorako laguntza araudia’ onartu zuen udalbatzak martxoaren 27ko osoko bilkuran. Lehendik ere bazegoen araudia, baina orain osatu egin da, eta beritasun nagusia hauxe da: herriko langabetuak kontratatzen dituzten enpresa txiki eta ertainek (50 langile baino gutxiago), Udalaren dirulaguntza jasoko dute: 1000 euro kontratazio bakoitzeko.

ENPLEGU NETOA SORTU

Lan kontratua egun osokoa izan behar da eta, gutxienez, sei hilabetekoa. Jardunaldi partzialekoa bada, Udalaren dirulaguntza ere proportzionala izango da. Gainera, kontratatutako langilea Oñatin erroldatuta egon beharko da, sei hilabetez, gutxienez.

Langileari Gizarte Segurantzza alta eman beharko zaio,


eta ez dira onartuko ordezkapenak edo langileen kontratu luzapenak. Enpresaren langile kopuruan gehikuntza eman beharko da, enplegu netoa sortuz Enpresako jabe edo bazkideen senideen (2. gradu-raino) kontratazioak ez dira kontuan hartuko.

GEHIGARRI BEREZIAK

kontratatzen diren langabetuen ezaugarriak kontuan hartuz, laguntza gehigarriak emango ditu Udalak, ondorengo kasu hauetan:

- **Emakumea** bada, %30 gehiago (1.300 €)
- **Langabezian 12 hilabete** baino gehiago badarama, %30 gehiago (1.300€)
- **Kontratatutakoaren familia-karga** bakoitzeko (seme-alabak, gurasoak...) (%10) gehiago, langabetuak badira, eta bestelako prestaziorik jasotzen ez badute. Guraso bananduen kargak ere kontuan hartuko dira.

2014ko urtarrilaren 1etik egin-dako era honetako kontratazioek izango dute laguntza jasotzeko aukera. Eskabide orriak eta informazio osagarria, udal Enplegu departamentuan (Bidebarrieta 12 /943037700).



Oñatiko ekonomiaren eta Gizartearen ATLASA

Udal Sozioekonomia departamentuak Oñatiko Ekonomiaren eta Gizartearen Atlasa egin du GAINDEGIArekin (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) elkarlanean.

Oñatiko demografia, ekonomia, gizarte eta inguruneari buruzko hainbat datu kontsultatu, interpretatu eta konparatzeko aukera izango dugu bertan: biztanleria, jarduera ekonomikoak, langabezia, etxebizitzaren parkea, nekazal eta baso-eremuak, industria guneak... eta beste hainbat.

Herriko hiru ikastetxeetako ordezkariak egin dute formazio saio bat, atlasak eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta, ondoren, ikasleekin erabili eta aplikatu ahal izateko. Kontsultatu nahi duenak, hauxe da helbidea:

<http://udalatlasak.gaindegia.org/onati>

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA | TEL/ FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPUZKOA) | limabar@euskaltel.net

www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EKINTZAILETASUNA SUSTATZEKO

Iau bulego berri egokitu ditu Udalak Olaburun

Enpresa berriak eta enplegua sustatzea da udal gobernu taldearen lehentasunetako bat, eta helburu horrekin, ekintzaileei laguntzeko iau bulego berri egokitu ditu Zubillagako Olaburu Enplegu eta Prestakuntza zentroan, 85.000 euroko inbertsioa eginda.

Azken urteotan, batez ere zerbitzu arlokoak dira Udalaren laguntza eskatzen duten enpresa ekimen berriak, eta gutxiago industria arlokoak. Horregatik, eskari horri erantzuteko asmoz, hutsik zegoen 119m²-ko tailer industrial bat birmoldatu eta iau bulego prestatu dituzte, Izaskun Legaristi arkitektoak egindako proiektuaren arabera; bulego txikiak 16m² ditu, eta handienak 44m², baina moldagarriak dira; hau da, ekintzaileen espazio beharretara moldatu ahal izango dira.

Honenbestez, zerbitzu arloko ekimenetarako 10 bulego (8 okupatuta daude une honetan) eta jarduera industrietarako 7 tailer (6 okupatuta daude) ditu Udalak Olaburu zentroan.



Enpresa berriak sortzen laguntzeko 10 bulego eta 7 tailer ditu Udalak Olaburun



Gaur egun Olaburun dauden ekintzaileetako batzuk, udal ordezkariekin. Eskuman, Udalak egokitu duen bulego berrietako bat.



► Nork erabil ditzake Olaburuko bulego eta tailerrak

Enpresa ekimen berri bat duen edozein pertsonak eska dezake Udalak Olaburun daukan bulego edo tailer bat erabiltzeko aukera. Baldintza bakarra da, enpresaren hasierako plantilla 10 lagunetik beherakoa izatea, eta kapital soziala 120 mila eurotik beherakoa.

Ez da derrigorrezkoa sustatzailea Oñatikoa izatea, baina sortu berri den enpresa Oñatin helbideratuta egon beharko da. Hala ere, herritarrek izango dute lehentasuna.

Lokal eta tailerren lagapen kontratua urtez urte berrituko da eta, gehienez, bost urtera arte luzatu ahal izango da. Hala ere, hirugarren urtetik aurrera, kontratuaren luzapena lokalen disponibilitatera baldintzatuta egongo da.

Kasu batzuetan, enpresaren bideragarritasun azterlana egiten den bitartean ekintzaileak bulegoa edo tailerra behar izaten du, produktuen prototipoak egteko, edo zerbitzu bat merkatuan testatzeko. Halako kasuetan 'Saiatu' izeneko programa dauka Udalak, eta aldi baterako uzten zaie lokala edo tailerra alokairu prezio sinboliko batekin (10€/hileko).

MODULUEN ALOKAIRU PREZIOA		
URTEA	TAILERRA m2/hileko	BUGEOA m2/hileko
1	0,83 €	1,03 €
2	2,47 €	2,97 €
3	4,75 €	5,71 €
4	6,74 €	8,07 €
5	7,36 €	8,81 €

► Laguntza tekniko eta ekonomikoak

Lokal eta tailerren lagapena egiteaz gain, Udal Sozioekonomia departamentuak laguntza teknikoa eta ekonomikoa ere ematen du enpresa berriak sustatzeko.

Alde batetik, enplegu teknikariaren bitartez tutoritza zerbitzua eskaintzen da enpresaren bideragarritasun plana egiten laguntzeko: finantza plana, forma juridikoa, enpresa eratzeko tramiteak...

Horrez gain, 300 eta 900 euro arteko laguntza ematen du Udalak, enpresa motaren arabera, bideragarritasun azterketa egiten laguntzeko. Eta enpresa eratu ondoren, sortutako lanpostu berri bakoitzeko 1.000 euro ematen ditu Udalak, lehenengo hiru urteetan. Lehen sektoreko aktibitatea bada, 3.000 euro sortutako lanpostu bakoitzeko. Sortzen diren lanpostuak ezingo dira izan bigarren aktibitate erakoak, eskusiboak baizik. Laguntza hauek jasotzeko Oñatin errolatuta egon behar da. Informazio gehiago, udal Sozioekonomia departamentuan (Bidebarrieta 12 / 943 037 700).

Kultur arloko proiektuak garatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

► Musika grabazioak, komiki, fanzine eta bestelako argitalpenak, antzezlanen produkzioak, ikus-entzuteko lanak eta teknologia berriein lotutako proiektuek jaso ahal izango dute laguntza

2014an zehar kultur arloko proiektuak eta programak gauzatu ahal izateko dirulaguntza deialdia egin du Udal Kultura sailak. Irabazi asmorik gabeko erakunde, talde edo norbanakoek eskuratu ahal izango dute laguntza. Nahikoa izango da talde eskatzailearen erdiak edota banakako eskatzaileak Oñatin errolatuta egotea.

Honako egitasmoetarako laguntzak emango dira: musikagileen grabazioak; komiki, fanzine eta bestelako argitalpenen edizioa; antzezlanen produkzioa edota irudikapena; ikus-entzuteko lanen produkzioa (zinea, bideoa), eta teknologia berriein erlazioatutakoak, besteak beste.

15.500 EURO
banatuko ditu
aurten Udalak

Dirulaguntzak emateko orduan ondorengo puntuak hartuko dira kontuan: proiektuen kalitatea; talde eskatzaileak bere lanean erakusten duen jarraipena eta egonkortasuna; herriko giza zein kultur ondareari egiten dion ekarpena; euskararen erabilpena sustatzea (erabilitako euskararen portzentariaren arabera izango da laguntza); eta proiektu osoan genero ikuspegia txertatzea (helburuetan, jardueretan, metodologian...).

Egitasmo bakoitzak gehienez 1.600€ jaso ahal izango ditu, aparteko kasuetan izan ezik. Udalak aurten duen dotazioa 15.500 eurokoa da. Deialdia GAOn argitaratu ondoren 30 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

■ BERDINTASUNAREN aldeko dirulaguntzak

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteek zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Emakumeen ahalduntzea, berdintasunaren aldeko elkartegintza, emakumeen parte-hartzea bizitzako arlo ezberdinetan (politika, kultura, kirola...), genero indarkeriaren prebentzioa, edota gizonen laneko berdintasunaren alde duten konpromisoa sustatzea xede duten prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzek, besteak beste, jaso ahal izango dute dirulaguntza. Martxoaren 13ko GAOn argitaratu zen deialdia eta apirilaren 14ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Aurten 4.069 euroko aurrekontua du Udalak atal honetan.

■ GAZTEEN jarduerak laguntzeko deialdia

Herriko gazteek 2014an zehar garatu hasmo dituzten jarduerak diruz laguntzeko deialdia egin du Udalak. Irabazi asmorik gabeko herriko talde eta norbanakoek eskatu ahal izango dituzte. Nahikoa da talde eskatzailearen erdiak edota banakako eskatzaileak 12-30 urte bitartekoak izatea eta Oñatin errolatuta egotea. Kultura eta arteen arloko sormen eta hedapeneko proiektuetarako (maketen grabazioak; komiki, fanzine eta antzekoen edizioa; antzezlanen produkzioa; zinea, bideoa eta teknologia berriein erlazioatutakoak...) laguntzak emango dira, besetak beste. Gehienez 1200 euro egitasmo bakoitzeko. Deialdia GAOn argitaratzen denetik 30 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

‘Informatika’ eta ‘Zaintza’

Udaleko Sozioekonomia sailak langabetuei zuzendutako Informatika ikastaroak antolatu ditu IKAS HIRU akademiarekin elkarlanean. OFIMATIKA arloko (Word, Excell, Access...) hiru maila eta Google Tresnak plataformako aplikazio ezberdinak (‘Outlook, OneNote, Evernote’) eta ‘Ofimatika hodeian’ landuko dira. 30 orduko ikastaroak izango dira. Apirilean hasita, hiru txanda ezberdinetan emango dira urte amaiera bitartean. Informazioa eta izen-ematea Ikas Hiru akademian (Bidebarrieta 5 / 943 78 31 03).

‘ZAINITZA’ IKASTAROA

Pertsona edadetuen edota menpekoen zaintza arloko formazio ikastaroa antolatu du Udalak, Bastida akademia eta ‘Fundación Tripartita’ elkartearen laguntzarekin. Maiatzean hasi eta uztailera bitartean 120 orduko ikastaroa da, eta langabetu nahiz langileei zuzenduta dago. Kontuan hartu behar da, laister beharrezkoa izango dela profesionaltasun agiria etxeetan zaintza zerbitzuak emateko.

Ikastaroa Arrasaten izango da, eta parte hartzen dutenei ikastarora joateko autobus-gastuak ordainduko zaizkie. Informazioa eta izen-ematea Udal Sozioekonomia sailean (Bidebarrieta 12 / 943037700).

ARANBURU
ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorentzo 4 behe | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

MONETA SOZIALA HITZALDI INFORMATIBOA APIRILAK 8 - KULTUR ETXEA - 14:45

Herriko merkataritza sektoreari laguntzeko asmoz, Moneta Soziala edo Tokiko Moneta abian jartzeko asmoa du Udalak. Helburu horrekin, hitzaldi informatiboa antolatuta du, moneta soziala martxan duten beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko. Hiru eredu ezberdin dira: Bilboko EKHI txanpona, Laudioko OGERLEKOA eta iparraldeko EUSKOA.

Bereziki herriko denda eta zerbitzuei zuzendutako hitzaldia da, baina interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta.

Bizikleta eta oinezkoentzako bidea Olabartaraino luzatu nahi du Udalak

Mugikortasun iraunkorra sustatu, eta oinezkoen eta bizikleta-zaleen segurtasuna bermatzeko asmoz, urrats berri eta inportanteak eman nahi ditu Udalak. Hala, Hiri-Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasotako hiru egitasmo gauzatzeko proiektuen idazketa kontratatatu berri du:

- **LAZARRAGA-UGARKALDE bidegorria:** Bidaurreta aurrealdeko bidegorria Ugarkalde auzokoarekin lotuko duen bidegorriaren proiektua.

- **UGARKALDE-OLABARRIETA artean bizikleta eta oinezkoentzako bidea.** Ugarkaldetik Olabarrietara doan GI-2360 errepide ertzean bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko proiektua.

- **LURPEKO PASABIDEA Olabarrietan:** Olabarieta eta Murgia auzoetako oinezkoen bideei jarraipena emateko, Covinor enpresa parean lurpeko pasabidea egokitzeko proiektua, GI-2360 errepidea arriku barik gurutzatu ahal izateko.

Hiru egitasmo hauen ezaugarriak eta kostuak ezagutu nahi ditu Udalak eta, horretarako, Sestra Ingeniaritza eta Arkitektura enpresari enkargatu dizkio hiru proiektu hauen idazketa, lanen zuzendaritza eta segurtasun nahiz osasun koordinazio lana barne, 53.400 eurotan.

Udako ordutegia Oñati-Arantzazu autbosu zerbitzuan

Apirilaren 1etik aurrera udaberriko ordutegia indarrean dago Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan. Goizeko 07:30etan hasita, orduro egongo da autobusa Oñatitik Arantzazura: 07:30, 08:30, 09:30, 10:30 (*), 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30 eta 18:30. Arantzazutik behera berriz, goizeko 08:00etan jeitsiko da lehen autobusa, eta hortik aurrera orduro: 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:15, 13:15 (*), 14:00, 15:00, 16:00, 17:15, 18:00 eta 19:00. (*) Arrikutzen geldialdia egiten du



Lope Agirre kalea trafikoarentzat itxita

Ondoko argazkian ikusten den moduan, bi zutoin ipini dituzte Lope Agirre kalearen barrunean eta, honenbestez, trafikoarentzat itxita geratu da kalea. Oinezkoentzako ibilbide seguruak irabaztea da udalaren Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren helburuetako bat, eta kontuan hartuz Lope Agirre kalea jende askok erabiltzen duela Foru enparantzatik Santa Marina alderako bidea egiteko, oinezkoen segurtasuna bermatzeko hartutako neurria izan da. Datorren urtera begira, kale osoan plataforma bakarra jartzeko asmoa du Udalak, San Juan kalen bezala. Kanean garajeak dituzten bizilagunak goiko aldetik (Santa Marina aldetik) sartu ahal izango dira Lope Agirre kalera.

UDALEKU IREKIETARAKO begiraleak kontratatatzeko deialdia egin du Udalak

Udalak antolatuta ekainaren 30etik uztailaren 24ra egingo diren Udaleku Irekietan begirale izan nahi dutenek **APIRILAREN 7TIK 16RA** arteko epea dute izena emateko udal bulegoetan. Lanean hasterako 18 urte beteta edukitzea, euskaraz ondo moldatzea, eta Eskola Graduaturen jabe izatea dira bete beharreko oinarritzko baldintzak. Hortik aurrera, aisialdi monitore gisa edota akademikoki duten formazioa, lan esperientzia eta EGA edo pareko titulua edukitzea puntuatuko dira.

Hautatutako begiraleei lan kontratua egingo die Udalak, ekainaren 30etik uztailaren 30era. Aurretik, bi formazio saio egin beharko dituzte derrigorrez, maiatzaren 24an eta ekainaren 27an.

HAURREN IZEN-EMATEA

Apirilaren 4an amaituko da Udaleku irekietan parte hartu nahi duten neska-mutikoen izena emateko epea. 2004-2010 artean jaioetako haurrek parte hartu ahal izango dute. Prezioa, 70 €. Zaintza zerbitzuan bi txanda egongo dira: goizean (8:30-10:00) eta eguerdian (13:00-14:00). Goizeko edo eguerdikoko zerbitzua hartuz gero, 45€ ordaindu behar dira, eta biak hartuz gero 70€.

Udaberriko ekintza bereziak Txaloka ludotekaren eskutik

Aste Santuaren inguruko oporraldian ekintza berriak antolatuko ditu Txaloka ludotekak. Beraz, egun hauek lagun artean dibertituz pasa nahi badituzue, hurbildu herriko plazara. Egunero ekintza bereziak izango dira giro onean gozatzeko.

- **APIRILAK 14:** Sukaldaritza
- **APIRILAK 15:** Wii
- **APIRILAK 16:** Altxorraren bila
- **APIRILAK 22:** Jaboigintza
- **APIRILAK 23:** Ibilaldia
- **APIRILAK 24:** Karaokea
- **APIRILAK 25:** Igeltsuzko maskarak



Apirilaren 14, 15 eta 16an arratsaldean (17:00-20:00) izango dira ekintzak. Beste egunetan aldiz, goizez (10:30-13:30). Herriko haur eta guraso guztientzat zabalduetako ekintzak dira; beraz, animatu eta hurbildu!. Eguraldi txarra eginez gero, azokako aterpean egingo dira ekintzak.

TRATU TXARREN AURKAKO GIDA argitaratu du Udalak



Udaletxean, Gizarte Zerbitzuetan, Kultur etxean, eta osasun zentroan eskura daiteke gida

Emakumeenganako tratu txarren aurkako gida plazaratu du udalaren Berdintasun sailak. Argi eta labur, informazio ugari eta interesgarria ematen duen 20 orrialdeko liburuska da. Lau hizkuntzatan argitaratu da (euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta frantsesez) ahalik eta jende gehienarengana iritsi ahal izateko.

Tratu txarrak aurreikusi eta detektatzeko lagungarriak diren adierazle edo seinaleak azaltzen ditu gidak. Horrez gain, 'ZALANTZAK ARGITZEN' izeneko atal zabal bat ere badu, halako kasuen aurrean emakumezkoek izaten dituzten kezka, galdera eta beldurrien inguruko argibide ugarirekin.



Sexologia aholkularitza zerbitzua abian da Gaztelekuan

Nerabe eta gazteei sexualitatearen inguruko informazio fidagarri eta segurua eskaintzeko asmoz Udalak kontratatu duen zerbitzu berria abian da gaztelekuan.

Bereziki 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua da, baina informazioa edo aholkularitza beharrean egon daitezkeen guraso eta irakasleei ere zabalik dago. Doako zerbitzua da.

‘Desirak’ enpresa bizkaitarreko aholkulariek eskainiko dute zerbitzua. Esperientzia handiko lantaldea da, sexu-hezkuntzari buruzko tailer ematen dituztelako hainbat ikastetxetan.

Ostiral arratsalde guztietan (17:30-19:30) bi aholkulari egongo dira gaztelekuan, bertaratzen direnei aurrez aurreko zerbitzua emateko prest. Hala ere, bertara joaten lotsatzen direnentzat, kontsultak sare sozialen bidez, e-mailez edo telefonoz egiteko aukera ere badago..

Sexu harremanen eta, konkretuki, koitoaren inguruko kezka eta galderak izaten dira ohikoenak nerabeen artean, baina, horrez gain, beste gai askoren inguruko kontsultak ere egin daitezke: gorputza eta genitalen inguruak zalantzak, masturbazioa, arazoak hilerokoarekin, bikote arazoak, jeloskortasuna, xantaia emozionalak, identitate sexualak, desiren orientazioa, antisorgailua eta emergentziako metodoen inguruko informazioa... Helburua, esan bezala, gazteei informazio seguru eta fidagarria ematea da, kalean jaso ditzaketen mito eta faltsukeriak alde batera utziz. Aukera bikaina dute gazteek beraien kezka eta zalantzak argitzeko.

Ostiral arratsaldetan (17:30-19:30)
DESIRAK enpresako bi aholkulari
egongo dira gaztelekuan, gazteen
kezka eta galderari erantzuteko



KONTSULTAK EGITEKO BIDEAK

● **ARRETA PRESENTZIALA:**
ostiraletan (17:30-19:30)
gaztelekuan

● **E-MAIL BIDEZ**
txantxiku.sexuaholkularitza
@gmail.com
Urgentziaren arabera,
24/48 ordutan
erantzun zaita

● **SARE SOZIALAK:**
Facebook eta *Twitter* bidez
artikuluak, argazkiak,
bideoak, berriak,
bitxikeriak... eskuraguri
egongo dira:
-Twitter: @Sexuaholkua
-Facebook: Oñatiko Sexu
Aholkularitza

● **BAT-BATEKO MEZULARITZA:**
Arreta presentzialeko
ordutegian *Skype* edo
Facebook bidez jasotako
kontsultek berehalako
erantzuna jasoko dute.

IRAZOLA

Okindegia

Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko ogia, egurrezko labean



Gomendio familiaren funtsa eraberritu egingo du Udalak

► XVIII eta XIX mendeetako dokumentuak gordetzen ditu 42 kutxatan



Udal artxiboan gordetzen den Gomendio familiaren fondoa garbitu eta deskribatzea erabaki du Udalak. Berrogeita bi kaxatan bildutako dokumentuak ditu; tartean, karlistadei buruzko paperak, kontu-dokumentuak, industriari buruzko informazioa, editatutako lanak, korrespondentzia eta nahastutako beste zenbait agiri daude.

Orain arte XIX-XX. mendeetako materiala zela uste izan da, baina XVIII. mendeko agiriak (kontu-liburuak) antzeman dira, eta litekeena da antzinagokoak ere egotea. Interes kultural eta historiko handiko materiala, edozein modutan ere.

Baina gaur egun dagoen egoeran funtsa ezin da kontsultatu, agiri gehienak zikin eta tolestatuta baitaude, argazkietan ikusten den moduan. Beraz, lehenengo eta behin dokumentu horiek guztiak garbitzea eta txukuntzea erabaki du udalak. Horretarako, era honetako lanetan

eskarmentu handia duen, Miravalles Restaura enpresara bidali da Gomendiotarren funtsa. Agiriak garbitu eta txukuntzeko lanek 9 aste iraungo dute, eta 5.000 euroko aurrekontua dute.

Dokumentuak garbitu eta aztertzeko moduan daudenean, hauen deskribatze eta sailkatze lana egingo da (dokumentu mota, garaia, edukia...) ikerlarien lana errazteko. Udazken aldera egingo da lan hau eta, beraz, urte amaierarako Gomendiotarren funtsa erabilgarri eta kontsultatzeko moduan egotea espero da, Izar Salaberri udal artxiboko arduradunak esan digunez.



BERRITZE LANAK. Lehenengo, garbiketa lanak egingen dira; 42 kaxak hustu eta lehorrean garbitzen dira agiriak, mikroaspiragailua, brotxa leunak, bisturiak eta gogortasun ezberdineko borragomak erabiliz. Ondoren, egonkortze lanak egingo, agiriak erabilgarri uzteko



ARANTZAZUKO IBILALDIA

APIRILAREN 12AN

Donostiako elizbarrutiak antolatuta Oñati eta Arantzazu artean egiten den ibilaldia apirilaren 12an izango da aurten, Erramu Igande bezperan, ohi bezala, 'Ebanjelioa, poz-iturri' lelopean. Goizeko 9:30etan abiatuko da Soraluze hotelaren aurrealdetik, Munilla gotzaina buru dela..

ASTE SANTUA OÑATIN

Oñatiko Pastoral Barrutiak antolatuta, hainbat elizkizun ospatuko dira Oñatin Aste Santuko egunetan. Aurretik, adiskidetzearen aldeko **Elkarte Penitentziak** egingo dira apirilaren 7an (Agustinoak, 20:00), 8an (Parrokia, 20:00) eta 9an (Bidaurreta, 20:00).

ERRAMU IGANDEAK (apirilak 13) emango dio hasiera Aste Santuari, honako elizkizun hauekin: Bidaurreta (10:00), Uribarri (10:00), Olabarrieta (10:00), Zubillaga (12:00), Parrokia (12:00), Beneditarrak (12:30) eta Agustinoak (12:30). **OSTEGUN SANTUAN** (apirilak 17), San Martin egoitzan (16:00), Koiskarren (18:00), Penitentzia eta Jaunaren Afaria, Parrokian (18:00), Bidaurretan (18:30), Agustinoetan (19:30) eta Beneditarretan (19:30). **GABEKO GURTZAK** ere egingo dira Ostegun Santu egunez: Bidaurretan (21:00), Parrokian (21:00), Santa Anan (21:00) eta Beneditarretan (22:00).

OSTIRAL SANTUAN (apirilak 18) Gurutz Bidea egingo da Parrokian (9:00 eta 17:30), Bidaurretan (11:30 eta 17:30), Olabarrietan (11:00), Zubillagan (11:00), San Martin egoitzan (16:00), Agustinoetan (18:00), Beneditarretan (18:00) eta Santa Anan (19:00). **LARUNBAT SANTU**ko elizkizunak Agustinoetan (20:30), Bidaurretan (21:00), Beneditarretan (21:00), Parrokian (21:00) eta Santa Anan (21:30) izango dira.

Azkenik, **PAZKO IGANDEAN** (apirilak 20) Beneditarretan (9:00), Santa Anan (10:00), San Martin egoitzan (10:00), Bidaurretan (10:00) eta Parrokian (12:00) ospatuko da meza, Aste Santuari amaiera emateko.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

BELAR, S.A. Irrati -Telebista

Olakua, 1 - C behea
Tel. / Faxa: 943 78 06 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)




FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS
FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS

Debagoieneko elizbarrutiak antolatuta, Juan Maria Uriarte, gotzain emeritua, Markel Olano, ahaldun nagusi ohia eta Floren Aoiz, Iratzar fundazioko zuzendaria, izan ziren Oñatin, bakeaz eta adiskidetzeari hitz egiten, ia goraino bete zen Santa Ana aretoan.

JUAN MARIA URIARTE Berradiskidetzeak bermatzen du bakea benetakoa dela, eta ez estrategikoa.

Uriarte jaunak ireki zuen mahaingurua. Adiskidetzea bakearen arima dela esan zuen; "berradiskidetzeak bermatzen du bakea benetakoa dela, eta ez estrategikoa". Jarraian, adiskidetzeak zer esan nahi duen argitu nahi izan zuen. Adiskidetzeak justizia humanista eskatzen duela esan zuen, gaur egungo egoerara egokitutako justizia, alegia.

Adiskidetzeak ez du esan nahi denok iritzi berekoak izan behar dugunik, baina bai elkar errespetatu behar dugula, indarkeria erabili gabe. Ildo horretan, gaineratu zuen Uriartek, adiskidetzea ez dela biktimak traizionatzea; aitzitik, biktimak sendatzen laguntzen duela.

Barkamena eskatzeari buruz esan zuen, ez dagoela horretara behartzen gaituen giza legerik, baina etika zibil eta kristauak barkamena eskatzea eta barkatzea esijitzen duela. Ildo horretan, gaineratu zuen, kristau komunitatearen zeregin inportantea dela berradiskidetzea sustatzea, Jesus bera ere horretara etorri baitzen mundura.

Eta, hian zuzen ere, berradiskidetzea sustatzeko hiru egiteko edo ekintza nagusi aipatu zituen Uriartek, 'La Reconciliación' liburuan azaltzen duenaren sintesia eginez. Lehenengo eta behin, berradiskidetzearen mezua barneratu eta zabaldu egin behar dugu; "ezin dugu iraganean gertatutako guztia lurperatu, dena argitu barik eta erantzukizunak onartu barik". Uriartek gaineratu zuen sufrimendua oso berria dela oraindik gure herrian, eta, beharbada, oraindik ez dela berradiskideterako garia iritsi, baina bai berradiskidetzeari hitz egiteko eta bidea prestatzen joateko.

Bigarren egiteko bezala, biktimak sendatzen laguntzea aipatu zuen Uriartek. Alde guztietako biktimak. Gatazkak azken 50 urteotan eragindako biktima kopurua gogoratu zuen. Askotan, biktimekiko jarrera pasiboegia izan dugula esan zuen. "Biktimekiko arretak ez du zertan itxaron; biktimei entzun egin behar diegu, hitzaren bidez askatzeko beharra baitute".



MAHAINGURUA / Juan Maria Uriarte, Floren Aoiz eta Markel Olano

BAKEAZ ETA ADISKIDETZEAZ

Azkenik, hirugarren egiteko bezala, hezkuntzaren bidez bakezaletasuna eta adiskidetasuna sortu beharra aldarrikatu zuen. "Ezin dugu pentsatu denborak dena konpontzen duela: berradiskidetzea landu egin behar da". Horretarako, besteak beste, frustrazioak eramaten irakatsi behar da, eta sensibilitzatu egin behar dugu elkarriketan eta barkamenean.

Uriartek dei egin zien herritarrei bake prozesuan parte hartzera. "Ezin dugu dena politikarien esku utzi. Herriaren presioa sentitu behar dute urratsak eman ditzaten adiskidetzearen bidean.

MARKEL OLANO Helburuak eta estrategiak jarri dira giza duintasunaren aurretik, eta hori ezin da errepikatu.

Markel Olanok hasi zuen bere hitzaldia esanez herritar guztiok egin behar

dugula geure ekarpena bakea eta berradiskidetzearen alde. Ildo horretan, berak hiru galdera jarri zituen mahai gainean: zer egin behar dugun iraganari, orainari eta geroari begira, bakea garatzeko gure herrian.

Iraganari dagokionez, gertatu den guztia argitu eta ondorioak atera behar ditugula esan zuen, biktimei zor zaien egia, justizia eta ordaina edo erreparazioa ardatz hartuta. "Gatazka honetan gehien sufritu duena pertsonen duintasuna izan da" adierazi zuen; "horixe da iraganak utzi digun ondorio eta ikasgai nagusia. Helburu eta estrategiak jarri dira giza duintasunaren aurretik, eta hori ezin da errepikatu. Pertsonen bizia eta eskubideak ororen gainetik jarri behar ditugu, bai praxi sozialean eta bai politikan".

Orainari begira, sufrimendua humanizatu beharra dagoela esan zuen. Presoen arloan esaterako, legea gaur egungo errealtatearen arabera aplikatzea eskatu zuen, enfoke humanizatzaile batetik. "Horrek bultzada handia emango lioke prozesuari. Ez du



La reconciliación
Juan Maria Uriartek argitaratu berri duen 'La reconciliación. Qué es y qué no es' liburuak argibide asko ematen ditu gai delikatu honen inguruan

JUAN MARIA URIARTE

■ Ezin dugu iraganean gertatutako guztia lurperatu, dena argitu barik eta erantzukizunak onartu barik.

■ Berradiskidetzea landu egin behar da; ezin dugu pentsatu denborak dena konpontzen duela.

zentzurik une honetan legeria enfoke antiterrorista batekin aplikatzeak".

Etorkizunera begira, hezkuntzaren garrantzia azpimarratu zuen. Giza duintasunaren printzipioetan hezi behar ditugu belaunaldi berriak; bakean elkarrekin bizitzeko kultura sustatu behar dugu, elkar errespetatuz eta elkar onartuz, bakoitza bere ideiak dituelarik.

Jaurlaritzan abian den Bake ponentzia ere hitz egin zuen Olanok, eta gogor salatu zuen alderdi politiko batzuk bertan ez egotea. "Oso larria iruditzen zait. Denok parte hartu behar dugu bake prozesua aurrera ateratzeko". Ildo horretan, esan zuen, espainiar iritzi publikoak hemengo alderdi politiko batzuen jarduna baldintzatzen duela, eta dinamika gaizto hori gaiztatu egin behar dugula aurrera egiteko. Elkarriketaren aldeko aldarria egin zuen amaitzeko; "guztion arteko elkarriketa, bestela, gizartea zatitzeko arriskua baitago".

■ FLOREN AOIZ

Euskal Herritarren arteko harremanak bideratzea askoz errazagoa litzateke, kanpoko ezarpenik ez balego.

Floren Aoizek justizia eta demokrazia aldarrikatu zituen benetako bake eta elkarbizitzarako oinarri bezala. "Elkarbizitza ez da termino edo baldintza berdinetan planteatzen denondako.

Horregatik, arazoa ondo diagnostikatu beharra dago". Aoizen ustez, euskal herritarren arteko harremanak bideratzea askoz errazagoa litzateke, beste batzuen eskuak tartean ez baleude; "baina gaur egun hori gertatzen ari da; hau da, erabaki batzuk kanpoan hartzen dira, ezarpenak eta betoak daude, eta horrek elkarbizitzarako baldintzak oztopatzen ditu".

Indarkeriarik gabeko egoera batean dena posible izango zela entzun dugu urte askotan, "baina ikusten ari gara aitzakiak eta gezurrak zirela. Bi urte pasa dira ETak erabaki garrantzitsu bat hartu zuenetik, eta ulertezina bada ere, Espainiar eta Frantziar estatuek errepresioa areagotuz erantzun dute. Nork pentsatuko zuen egoera hau posible izango zela orain dela hamar urte?" galdetu zuen politikari nafarrak.

Benetako konponbide bat nahi badugu, gatazka ondo konpondu eta itxi behar dugula esan zuen Aoizek. "Iraganeko irakurketa egitea inportantea da, baina askoz inportanteagoa da etorkizunera begira jartzea, eta horretarako gako nagusiak justizia eta demokrazia dira. Baldintza demokratikoak jarri behar ditugu, indarkeriari bideak itxiz. Eta horretarako, denon aukera politikoak bideragarri eta bidezko egin behar ditugu, inori atea itxi barik. Herritarrok gure etorkizuna erabakitzeke ahalmena dugula bermatzen dugun egunean lortuko dugu benetako justizian eta demokrazian oinarritutako pakea". ■

MARKEL OLANO

■ Legeria enfoke humanizatzaile batetik aplikatzeak bultzada handia emango lioke prozesuari

■ Espainiar iritzi publikoak hemengo alderdi batzuen jarduna baldintzatzen du; hori gaiztatu beharra dugu.

FLOREN AOIZ

■ Iraganeko irakurketa egitea inportantea da, baina askoz inportanteagoa da etorkizunera begira jartzea.

■ Baldintza demokratikoak jarri behar ditugu, denon aukera politikoak bideragarri izan daitezen

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

“ Estatuen itxikeriak sortzen duen haserrea energia bilakatzea lortu behar dugu, Katalunian gertatu den bezala

Floren Aoiz (Tafalla, 1966) ezker abertzaleko politikaria, Sortu alderdiak eratu berri duen 'IRATZAR' fundazioko zuzendaria da. Ideien eztabaidan eragiteko asmoz sortu da Iratzar, pentsamendu kritikoa eta burujabetzaren inguruko gogoeta sozializatu eta bultzatzeko helburuarekin. Bakeaz eta adiskidetzear hitz egitera Oñatira etorri zela baliatuz, Euskal Herrian bizi dugun bake prozesuaz eta ezker abertzalearen estrategiaz galdetu galdetu genion.



Bi urte luze igaro dira ETak borroka armatua uztea erabaki zuenetik, baina Espainia eta Frantziako gobernuak ez dira mugitu. Horrek tristura eta kezka handia eragiten dizula esan duzu gaurko hitzaldian. Alde bakarreko bidea hartu izanaz damutzen al da ezker abertzalea? Ez, ez nuke halakorik irudikatu nahi. Ezker Abertzaleak hausnarketa eta eztabaida prozesu sakona egin zuen duela urte batzuk, hortik ondorio batzuk atera ziren, eta esango nuke, geroztik gertatutakoak berrindartu egin duela hartutako bidea.

Gertatzen dena da, aldebakarreko dinamika horiek topo egin dutela izugarritzko kontrapresio batekin. Espainiar eta Frantziar estatuen jarrera ez da bakarrik ezkorra, baizik eta ofentsiboa; inoluzio bat gertatu da, eta hori oso kezagarria da.

Errealitate hori hor dago, eta aintzat hartu behar dugu, baina horrek ez du kolokan jartzen gure apustu estrategikoa. Egin behar dugun irakurketa da, nire ustez, geure herrian dagoela benetako indarra, geure herriari interesatzen zaiola prozesu hau aurrera ateratzea, eta saiatu beharra daukagula estatuak mugiarazten.

Ezker abertzaleak bere egunean egin-dako kalkuluak huts egin al dute?

Nik ez dut hala ikusten. Herri honetan azken urteotan markatu den agendan urrats inportanteak eman dira. Ez dezagun ahaztu nazioarteko eragile garrantzitsuak izan ditugula prozesuari babesa ematen. Baina, jakina, nork pentsatuko zuen, 10 edo 15 urte atzera eginda, ETak halako erabaki bat hartu,

nazioarteko konferentzia bat antolatu, Nazio Batuen idazkari ohi bat bertara etorri eta abar, eta, hala ere, Espainia eta Frantziaren aldetik ez zela egongo bestelako jarrerarik?

Hala ere, uste dut agenda ondo doala, eta esango nuke, sabotaia eta oztopoen pisua biderkatzen joan baldin bada, izan dela ez dutelako lortu agenda hori bertan behera uztea. Aintzat hartu

Geure herrian dago benetako indarra. Gure herriari interesatzen zaio prozesu hau aurrera ateratzea, eta saiatu beharra daukagu estatuak mugiarazten

behar dugu, adibidez, Clinton bezalako pertsonaia bat prozesuaren alde posizionatu izana, edota Estrasburgok Parot dokittrinaren inguruan hartutako erabakia. Espainia eta Frantziako gobernuen jarrera desautorizatzen dute.

Azken bi hauteskundeetan babes zabala jaso du ezker abertzaleak. Emaizak okertuko balira, estrategia aldaketa bat eragingo al luke?

Uste dut ezetz. Hauteskundeetako emaitzak ondoren irakurri behar dira, ez aurretik. Edozein modutan, pentsa

dezagun, Euskal Herrian azken urteetan egin den mobilizaziorik handiena Bilboko manifestazioa izan zela; presoan esku-bideen alde antolatuta zegoena, eta, haratago joanez, konponbidearen alde egin zena. Garbi ikusi zen gure herriak urratsak eman nahi dituela bide horretan. Txalo edo onespen bat da ezker abertzalearen ildoari, baina eskaera batzuk ere egiten dizkio; alegia, urrats gehiago emateko, eta bide horretan tinko mantentzeko, oztopo eta probokazio guztien gainetik.

Alde bakarreko estrategia horrekin Madrilgo gobernu eroso dagoela ematen du.

Uste dut ez dagoela hain eroso. Benetan indartsu sentituko balira, eroso egongo lirake; baina ez dira indartsu sentitzen. Espainiak arazo handiak ditu, ekonomikoki eta politikoki. Kataluniako arazoa ere hor dago. Oso kezkatuta dago PPren gobernuak. Nik uste dut itxikeria ez dela posizio komodo batetik, baizik eta beldurraren posiziotik. Edozein mugimendu eginez gero, kalterako izango dela uste dute.

2016an izango dira hauteskundeak Espainian. Uste duzu ezer aldatuko litzatekeela PSOE gobernura iritsita?

Gaur egun, tamalez, estatu mailan adostasun kasik osoa dago PP eta PSOEren artean, ñabardura txiki batzuk salbu. Pentsa dezagun zer gertatu den Nafarroan. Azkenean estatu-arrazoia inposatu da. Etorkizunean zer gertatuko den ez dakigu, baina esperantzarako motibo askorik ez dut. Nik itxaropena daukat gure herriaren indarrean. Gure

herrian indartzen ari da bake eta konponbide nahia eta, lehenago edo beranduago, espainar eta frantziar gobernuek erreparatu beharko diote horri.

Gatazkaren ondorioak eta, konkretuki, presoan auzia bideratzea, denbora kontua izan daiteke. Zailagoa ikusten dut nik, oinarrian dagoen gatazka politikoa bideratzea.

Uste dut formulazioan urrats batzuk ematen ari direla. Gaur egun, jada, denok onartzen dugu gatazka politiko bat badela: herria, lurraldetasuna, nork erabakitzen duen, zer, nola...

Kostako zaigu, baina konbentzituta nago, estatuen aldetik sabotaiak eta betoak desagertuz gero, nahikoa erraza izan daitekeela euskal herritarren artean galdera horiei guztiei erantzuna ematea.

Lortu behar duguna da, eta hor dugu erronka handia, estatuen itxikeriak sortzen duen frustrazioa eta haserrearen energia bilakatzea, Katalunian bezala.

Dena den, maila politikoan alde bakarreko estrategiak ibilbide motza duela iruditzen zait.

Bai, baina aldebakartasunaz ari garenean, jada Euskal Herriaz ari gara; ez bakarrik ezker abertzaleaz edo ETAz. Kontua da Euskal Herriaren gehiengoak horixe nahi duela. Uste dut urrats inportanteak ematen ari direla agendan, eta herri mugimenduek hartu duten protagonismoa oso interesgarria da. Geure aldetik egin beharko dugu bidea, beraiekin ez dagoelako kontatzerik, eta, oztopoak oztopo, ez gaituzte geldiaraziko. Uste dut estatuen itxikeria bilakatzen ari dela independentziaruntz joateko grina.

Estrategia eta iritzi ezberdinak daude erabakitze esparruez eta erritmoez, besteak beste. Egoki ikusiko al zenuke Euskal Erkidego Autonomoan Katalunian-koa bezalako prozesu bat abian jartzea? Guk uste dugu Euskal Herrian azken urteetan izugarritzko urratsak eman direla batzeko eta erritmoak hurbiltzeko. Eta hori da gure zermuga, hau da, euskal herrialde guztietan urratsak ematea. Historikoki, zatiketa planteatu izan denean, sujetaoren desagerpena eta ahultzea ekarri du. Hori ez da bidea.

Ahalegin guztia egin beharko da, denon aserako eta denon onerako izan daitekeen eredia bilatzeko. Inportanteena da noruntz goazen argi izatea. Barne kohesiorako indarrak areagotzen ari dira, eta hori da inportanteena. Ez dugu zatiketa irrebirsibletzat ematen. Zatiketa beste garai bateko produktua da, eta itzulgarria da. Gainditu daiteke.



Arg.: qleer.es

Abortatzeko askatasun eske

Goiko argazkia da martxoak utzi digun irudi aipagarrienetako bat, kontuan hartuz, gainera, protagonistetako bi oñatiarrak direla. Martxoaren 8koa da argazkia; EAEko Alderdi Populara Donostiako Kursalean egiten ari zen biltzarrean Mariano Raxoiren hitzaldia eten zuten, abortoaren lege erreformaren aurka protesta eginez. Aurpei eta eskuak gorritz margotuta, *'Aborto ilegal, violencia estatal'* eta *'Gure gorputza, gure erabakia'* oihu egin zuten segurtasun arduradunek aretotik irtenarazi zituzten arte.

APIRILAREN Sean IRUÑARA

Euskal Herriko Mugimendu Feministak antolatuta, Gallardonoren abortu-lege erreformaren aurka protesta egiteko Iruñan (17:30) egingo den manifestaziora joateko dei egin du Oñatiko Sare Feministak. Autobuserako txartelak Arrano, Oñati eta Ona tabernetan eskura daitezke.



'Gazte Burutakzio' topaketetara joateko deia egin du Ernaik

Duela urtebet eratu zen ERNAI gazte antolakundea, Euskal Herri aske, sozialista eta feminista eraikitze helburuarekin. Urtemuga ospatzeko, 'GAZTE BURUTAKZIO' jardunaldiak antolatu ditu Ipar Euskal Herriko 'Aitzina' gazte erakundearekin batera.

Gazteak beren bizitzaren jabe bihurtzea da kanpainaren helburua. "Gaurko gizarte kapitalista patriarkalak gazte burugabeak nahi ditu, bere norabide suntsitzailean ahalik eta gehien explota gaitzan, miseriara kondenatuz. Horretarako, drogak, kontsumoa edota telebista erabiltzen ditu, gazte pasibo, sumiso eta ez-kritikoak sortzeko" salatzen du Ernaik.

Bestelako bizitza eredu baten alde lan egin nahi dute, eta ildo horretan 'Gazte Burutakzio' topaketak egingo dituzte apirilaren 17, 18, 19 eta 20an, sistema kapitalistari aurre egin, eta gazteak burujabe izateko bidean behar izango dituzten ezagutza eta tresnen gainean formatu eta eztabaidatzeko.

Formazio eta gogoeta saioez gain, kultur eskaintza zabala egongo da lau egunetan zehar. Ernaik dei egiten die herriko gazte guztiei jardunaldietan parte hartzera. Arrano tabernan daude salgai txartelak 30 eurotan (autobusa eta egonaldia). Horrez gain, maiatzaren 3an Bilbon egingo den mobilizazioan ere parte hartzeko deia egin du Ernaik.

■ ENPRESA EKIMENAK

PLANTXAPREST

plantxa zerbitzua

Tarteka, udal Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan, Esther Otxoa-Aizpuruak abian jarri duen plantxa zerbitzua aurkezten dizuegu. PLANTXAPREST zerbitzuak bezeroen etxean jasotzen ditu arropa garbiak, eta 48 ordutan bueltatzen ditu plantxatuta.

Nolatan bururatu zaizu plantxa zerbitzua jartzea?

2012an langabezia geratu nintzen krisiaren ondorioz. Egoera hobetu ez denez, buruari bueltak ematen hasi nintzen, lana eta familia aldi berean eramateko aukera emango zidan aktibitatearen bat jartzeko helburuarekin, ume txikiak dauzkatz eta. Bueltasko eman ondoren, pentsatu nuen badagoela jendea plantxatzea gorroto duena, edo denborarik ez duena, edo nahiago duena denbora libreaz disfrutatu erropak lisatzen egon beharrean. Uste dut badagoela jende mota bat interesatuta egon daitekeena era honetako zerbitzu batean eta, beraz, proba egitea erabaki dut.

Zein daukazu buruan? Nori dago zuzenduta zerbitzua?

Batetik, hirugarren adineko pertsonak; zerbitzu eroso eskaini nahi diet beren eguneroko bizitza errazteko. Bestetik, familia ugariak, erropa asko pilatzen zaizkielako etxean. Ama edo aita izan berri direnentzat ere lagungarria izan daiteke, plantxatu beharra zama gehigarria izan ez dadin. Bi bikotekideek lan egiten duten familiak ere interesatuta egon daitezke, denbora libre gehiago izan dezaten disfrutatzeko.

Segmento edo multzo horiek ditut buruan, baina, berez, herritar guztiei dago zuzendua zerbitzua.

Zer eskaintzen duzu?

Nik bezeroaren etxean jasoko dut erropa garbia, eta 48 ordutan bueltatuko diot plantxatuta. Kasu berezietarako, 24 orduko zerbitzu azkarra ere eskaintzen dugu.

Eguneroko erropez gain, izarak, koltxak eta funda nordikoak ere plantxatzen ditut, eta baita ere soinekoak, trajeak, jakak, amerikak, mantelak...

Zer nolako tarifak dituzu?

Eguneroko erropak (izarak eta koltxak barne) direnean, 10 unitateko paketea 10 eurotan; haurren erropak badira, 5 eurotan. Bonoak ere baditugu, plantxa zerbitzua sarri erabili nahi dutenentzat, ekonomikoagoa irten dakien.

Inbertsio handia egin behar izan al duzu? Laguntzarik jaso al duzu?

Inbertsio handirik ez dut egin behar izan; plantxarako aparatuak erosten egindakoa, lana neure etxean egingo baitut. Bestalde, udaleko eta mankomunitateko enplegu eta ekimen teknikarien laguntza jaso dut bideragarritasun azterketa egiteko.



PLANTXaprest

Plantxa zerbitzua
Esther Otxoa-Aizpuru

ZERBITZU AZKARRA ETA EROSOA
Arropa garbia jasotzera joango gara.
48 ordutan, plantxatuta bueltatuko dizugu. **DEITU!**
Telefonoa: 688 681 655

ARROPA PAKETEA*: 10 UNITATEK GORA

10 unitate (helduak)
10€
Alkandorak oporke

10 unitate (haurrak)
0-12 urte
5€

BONOAK:

PLANTXaprest
50 UNITATE
45€

PLANTXaprest
10 ALKANDORA
15€

Kasu berezietarako, 24 orduko zerbitzu azkarra ere eskaintzen du Estherrek

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak etxez etxe
- Ospitaletara bidalketak

Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com





Lanpostuei eusteko laguntza eskatu dute Cegasako langileek

Enpresako zuzendaritza jo dute Taldeak bizi duen egoeraren erantzule Ez du gaitasunik Taldea bideragarri egiteko, langileen ustez

Mila bat lagun bildu ziren Oñatiko kaleetan 'Eutsi diezaiegun gure lanpostuei!' lelopean Cegasa Taldeko langileek deitutako manifestazioan. Txistu, sirena eta oihu artean, enpresako zuzendaritzak egindako kudeaketa "negargarria" salatu zuten langileek; "bere gaitasun ezak eta harrokeriak, eta merkaturak ez ezagutzeak ekarri gaituzte egoera honetara, 900 langileren enplegua arrisku larrian jarritz".

Manifestazioaren amaieran irakurritako komunikatuan azaldu zituzten Cegasa Taldea egungo ataka gaiztorea ekarri duten faktoreak. "2008an utzi zitoten pila alkalinoak Gasteizen egiteari. Nazioartean zabaltzeko plana oso-oso gaizki bideratu dute. Bazkide eta inbertsoreek egindako diru-ekarpen ugariak dinda xahutu dituzte. Defizita eragiten zuten lerroak kentzeko ekimenik ez dute izan. Ezin okerrago prestatu dituzte Txinako lantegiak industrian aritzeko. Horregatik guztiagatik eta etengabe inprobisatzen aritezagatik dago Taldea egoera larri honetan".

Azken bost urteotan 350 lanpostutik gora galdu direla gogoratu zuten langileen ordezkariak. Eta bestelako ondorio larri batzuk ere aipatu zituzten: hartzekodunen eta bezeroen artean sinesgarritasuna galtzea, milioitako emaitza negatiboak jasotzea, CEGASaren izen ona lausotzea, eta Taldeak bizi duen finantza-egoera pengarria. "Azkenean, Talde osoa hartzekodunen lehiaketan sartu da, eta ERTE bat (Enplegu Erregulaziorako Aldi Baterako Espediente) egingo da", gaineratu zuten.

KONFIANTZARIK EZ ZUZENDARITZARENGAN

Horregatik guztiagatik, zuzendaritzarengan eta, konkretuki,

Aitor Madina administratzaile bakarrarengan inolako konfiantzarik ez dutela adierazi zuten; "ziur gaude ez dutela gaitasunik Taldea bideragarri egiteko".

Taldearen eta lanpostuen alde langileek egindako esfortzua ere gogoratu zuten. "Bake soziala eta dirua jarri dugu geure aldetik: horren adibide dira, besteak beste, kobratu gabe dauden soldatak, ERTEa, plantilla murrizketak, lan-eskubideen murrizketa... Baina, hala ere, zuzendaritzak langileen sakrifizioei etekinik atera ez, eta enpresa gaur egungo eragoera eraman du".

Juan Zelaiazen izena ere aipatu zuten. Langileek gutun bat bidali diote, enpresako buru izan zen bitartean egindako esfortzua eskertuz, baina era berean, aurpegiratu egiten diote, "azken urteotan enpresaren lehiaketa eutsi diotenak ez direla gauza izan berak sustatutako baloreei eta enpresa-kulturari jarraipen emateko".

LAGUNTZA ESKE

Cegasa Taldeko langileen ordezkariak hainbat bilera egiten ari dira erakunde ezberdinetako

ordezkariekin, laguntza eskatzeko. Hartzekodunen lehiaketako solaskidetzan, ERTEaren negoziazioa eta balizko inbertsoreekiko kontaktuetan parte hartzea eskatzen dute.

Cegasa Taldeak 117 milioi euroko zorra du, horietako 87 inguru banketxeekin. Gasteizko epaitegiak izendatutako bi administrazioaileak hasi dira jada enpresa taldearen egoera aztertzen, eta, ziurren, aste honetan bertan sartuko da indarrean ERTEa; Oñatiko lantegian %25eko eragina izango omen du.

LANGILEEN ORDEZKARIAK

"Bake soziala eta dirua jarri dugu geure aldetik. Horren adibide dira: kobratu gabeko soldatak, ERTEa, plantilla eta lan eskubideen murrizketak... Hala ere, zuzendaritza ez da gai izan langileen sakrifizioari etekinik ateratzeko"

Oñatiko bizikletaren erabilera

Pedalei eraginez herrian bueltaka

Bizikletaren erabilera gora egin duela azken urteetan esateak ez du inor harrituko. Euskal Herrian, baita Oñatin ere, gero eta ekimen gehiagoren bidez bizikletaren erabilera bultzatu nahi da gainera, izan ere, garraio-bide, merke, ekologiko eta osasungarria da.

Eguraldi onarekin batera, kaleak oinezkoen bete eta neguan bazterrean eduki ditugun bizikletak aterako ditugu kalera. Bizigarritasuna eta bizi-kalitatea

hobetzea, oinezkoen eta bizikletari segurtasun handiagoa ematea, joan-etorriak eta eremu publikoaren erabilpena erosoagoak eta arinagoak izaten laguntzea eta kalea erabiltzean eta gozatzean errespetuak duen garrantzia eta eremuak partekatu beharraz ohartaraztea izango da guztion helburua.

Guzti honetan lagundu asmoz, hemendik aurrera, Kontzejupetik aldiakaria baliatuz, hilabetero bi orrial-



Duela urte batzuk antolatutako bizikleta martxa.

“Erabili dezagun bizikleta zentzuz, bai, ez gaitezen oinezkoen amesgaizto izan”

LEIRE EGAÑA

Ingurumen Batzordeburua

de eskeiniko dizkiogu bizikleta eta bere inguruko albisteei. Bizikleta garraio-bide duen jendea ezagutuaz, bizikletak munduan zehar duen harreraz...

Erabili bizikleta zentzuz, bai, ez gaitezen oinezkoen amesgaizto izan.

< Munduan zehar >

Friburgo jasangarritasunera bidean

1982 eta 1999 bitartean, bizikletaren erabilera Friburgoko hiriburuan %15etik, %28ra handitu zen. Era berean, garraio publikoaren igoera ere, nabarmena izan zen; %11tik %18ra. Igoera hauek, gainontzeko motordun ibilgailuen ibilbideak jeistea ekarri zuen. Ibilgailu hauen kasuan, beherakada hori, %38tik %30era-koa izan zen. Alemaniako beste hiriburu batzuekin alderatuz, gaur egun, Friburgok motordun ibilgailuen dentsitate maila txikiena duen hiriburu da. 423 ibilgailu, 1.000 biztanleko.



< Bazkide kanpaina >



Martxoaren 29an Oñatiko plazan egon ginen, etorkizunera begira ditugun asmoak azalduz. Bazkide kanpaina ere zabaldu genuen eta zorionez, herriko Txirrinka familia handituz doala esan dezakegu. Bestalde aipatu nahi dugu, hileko lehen astelehenetan (19:15) elkartzen garela kiroldegian eta ateak zabalik ditugu zuen ekarpen eta iritziak jasotzeko. Datozen hiletako bilera egunak hauek izango dira: Apirilak 7, Maiatzak 5, Ekainak 2, Uztailak 7, Irailak 1, Urriak 13, Azaroak 3 eta Abenduak 1.



**ALTUBE
ZERBITZUAK**

Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa



MAPFRE

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



Izena: Pili Perez
Ogibidea: Langilea

Zer da bizikleta zuretzat?

Momentu hauetan garraiobide eta bizitza estilo bat dela esango nuke.

Zergaitik eta zertarako erabiltzen duzu?

Bizikleta duela 3-4 urte hasi nintzen erabiltzen etxetik lanera azkarrago joateko. Orain ordea erosketak egiteko eta orokorrean herrian mugitzeko erabiltzen dut.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Nik igerri diodan abantaila, azkartasuna da. Herrian alde batetik bestera oso azkar eta trafiko oztoporik gabe mugitu zaitezkeela, alegia.

Zer egingo zenuke Oñatiko bizikletaren erabilera bultzatu edo hobetzeko?

Bidegorri sarea eratzeak asko lagundu duela iruditzen zait. Azpiegitura hauek osatzen joateak, bizikletari garrantzia handiagoa ematen diote.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Geroz eta jente gehiago dabil bizikletan. Jasagarria eta ekonomikoa da. Etorkizuneko garraiobide bezala ikusten dut.

Apirilak 26an, San Anton Plazan

GOLSD SPRINTS, hauspoa berotzen joateko ariketa bikaina

Kantokrit taldeak antolatuta, ekintza oso berezia egingo da apirilaren 26an San Anton Plazan. Goldsprints delakoa, bata bestearen aurka arrabolan aritzean datza. 500 edo 1000 metroko esprintak izaten dira normalean eta antolakuntza taldeak egitaraua erabat finkatu gabe duen arren, badirudi distantzia horietako "lehiak" ikusi ahal izango ditugula herriko erdigunean kokaturiko karpa berezian. Datozen egunetan informazio gehiago zabalduko dute Kantokriteko Facebookeko orrian. Aipatu beharra dago, Euskal Herrian oraindik ez dela Goldsprintik egin, beraz, badirudi Oñatikoa aurreneko esperientzia izango dela.



Goldsprints lehiaketaren simulazio irudia.

Merkatua >

Txirrindulariaren itzala

Blaze Laserlight argia



Blaze Laserlight argia oso egokia da gauez edo ikuspen gutxi egoeratan bizikletan ibiltzeko. Segurtasun gailu honek, bizikletaren silueta proiektatzen du errepidean. Honi esker, beste guztiak berehalakoan jabetuko dira txirrindulariaren presentziarekin.

Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=DhgGA06UZEU>

Prezioa:

150 € (gutxi gora behera)

caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

ALOÑAKO 10. IGOERA / maiatzak 2, 3 eta 4

ALOÑAKO TXAPELA AURTEN GARESTIAGO

► 22,6 kilometro izango ditu ibilbideak. **Buetraitz, Akaitz, Arriurdin eta Artzanburu** igo beharko dituzte korrikalariek.

► Aurretik, ostiralean, Aloñako I. **lasterketa bertikala** jokatu da, Bellotza eta Buetrantz artean, gabaz (21:30)



BERRIKUNTZA UGARI, 10. EDIZIOA OSPAZKEKO

Hamargarren urteurrena beteko du aurten Aloñako Igoerak, eta hori ospatzeko, edizio berezia izango da aurtengoa. Berrikuntza askorekin etorriko da.

Egun bateko lasterketara mugatu barik, maiatzaren 2tik 4rako asteburu osora zabalduko dira 10. edizioko ospakizunak.

Ostiralean, maiatzak 2, Aloñako I. Igoera Bertikala jokatu da Arantzazu eta Buetrantz artean. Lasterketa bertikaleko Euskal Herriko txapelketa izango da.

Larunbatean (maiatzak 3), oraindik erabat lotu gabe dagoen desafio bat prestatzen ari dira, kirolari ezagunen artean.

Asteburua borobiltzeko, igandean (maiatzak 4) Aloñako X. Igoera jokatu da, baina ibilbide berriarekin, luzeagoa (22,6km.) eta gogorragoa.

(www.aloia.net)

IGOERA BERTIKALA (Bellotzatik Buetrantzera)

Maiatzaren 2an (ostirala) Aloñako I. Igoera Bertikala jokatu da, gabaz. Arantzazuko santutegiaren azpian dagoen Bellotzako zubian abiatuko dira korrikalariak, eta Buetrantzeko tontorrera igo beharko dute, 2,8 km. eta 716 m.-ko desnibel positiboa gaindituta. Gaueko 21:30etatik aurrera abiatuko dira korrikalariak banan banan, 30 segundoko tarterekin (azken 10 korrikalariak, faboritoak, minutu bateko tarte izango dute). Lasterketa hau puntuagarria izango da Euskadiko mendi lasterketen koparako, eta, gainera, Euskal Herriko txapelketa izango da.

ALOÑAKO X. IGOERA (22,6 km.)

Aloñako Igoerak ibilbide berria izango du aurten, luzeagoa (22,6km.) eta gogorragoa, 2020 m.-ko desnibel positiboarekin. Korrikalariak herriko plazan abiatuko dira, eta Aloñara igoko dute, ohiko bidetik. Baina gurutzera iritsi ondoren, buelta eman beharrean aurrera jarraituko dute korrikalariek Aizkorriko mendikatean barrena, Buetrantz, Akaitz, Arriurdin eta Artzanburu gainak igoz. Ondoren, Aloña mendiaren ipar aurpegian dagoen mehatzarren bide zaharretik jeitsiko dira korrikalariak, herriko plazara iristeko. Lasterketa hau klubaren arteko Euskal Herriko txapelketa izango da. Maiatzaren 4an izango da, goizeko 9etan.

DESAFIXUA eta UMEENTZAKO EKINTZAK

Oraindik erabat lotu gabe dagoen arren, maiatzaren 3an (larunbata) hainbat kirolari ezagunen (Jon Odriozola, Aitor Lopez Rekarte, Mikel Astarloza...) arteko desafixua prestatzen ari dira antolatzaileak. Bikotekako proba izango da modalitate ezberdinak uztartuz: bizikleta, korrika, parapentea... Horrez gain, gaztetxoentzako hainbat ekitaldi (lasterketak, puzgarriak, Arrikutzera bisita...) ere antolatzen ari dira.

■ MENDI IRTEERA

SAN DONATO MENDIZERRA Lizarraga-Berriain (1493m.)-Uharte

Lizarragako tunetetik abiatuko gara, Andia eta Berriain mendikateen arteko herradura osoa egiteko. Ibilbide nahikoa laua hasieran. Berriain tontorrean, San Donato eta San Cayetano ermitan geratu ondoren, jeitsiera gogor batetik Uharte herrira helduko gara. 600m.-ko desnibel positiboa izango dugu, 22 km.-ko luzeera. 6-7 ordutan burutuko dugu.

IRTEERA: goizeko 7etan, Korreos parean

IZEN-EMATEA: apirilaren 10era arte, Aloña tabernan.

PREZIOA: bazkideak, 10€, ez bazkideak 13€, langabetuak 5€



San Donato mendizerrako gailurrik inportanteena da, eta Nafarroako mendirik berezientakoa

■ IGERIKETA

Nerea Diaz Euskal Herriko txapelduna 200 bizkarrean

Nerea Diaz Aloña Mendiko Infantil mailako igerilariak urrezko domina lortu du Euskal Herriko txapelketan 200 Bizkarrean (2:29:37). Martxoaren 8-9an Tolosan jokaturako lehiaketan zilarrezko beste bi domina ere lortu zituen 100 Libre (1:02:80) eta 100 Bizkarrean (1:08:52). Bestalde, Eric Ugarte 8. sailkatu zen 400 Librean (4:37:78) eta seigarren 200 Librean (2:09:98). Enaitz Ibabek ere txapelketa ona egin zuen, bere markak hobetuz (Krol erako) 400 (5:04:59), 200 (2:20:31) eta 100 Librean (1:03:79).



JOSUNE ODRIEZOLAK BOST DOMINA ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Josune Odriozolak bost domina eskuratu ditu Madrilén jokatu berri diren autonomien arteko Espainiako txapelketan, maila egokitu. Urrezkoa irabazi zuen 200 Bizkar estiloan, zilarrezko hiru 400 Libre, 200 Libre eta 50 Bizkarrean, eta brontzezko bat 200 Estiloetan. Hala ere, Josune ez da erabat gustura geratu, markak ez direlako berak nahi bezain onak izan. Uda partean Holandan jokaturako den Europako txapelketarako minimak egitea du helburu Aloña Mendiko igerilariak.

■ DUATLOIA

Gaztañaga eta Ducasse irabazle Oñatin

Guillaume Ducausse (1:54:41) Saltoki taldeko frantziarra eta Maider Gaztañaga (2:08:12) Tolosaldeko Triatloi Taldeko ordiziarra izan ziren azkarrenak Oñatiko 23. duatloian. Aurreneko oñatiarra Xabier Luis (1:59:40) izan zen 14. postuan. Bere taldekide Ander Agirre (2.) eta Mikel Mugikak (10.) lortutako puntuak esker, Antxintxika-Servimasa taldeak lortu zuen garaipena taldeak. Azpimarratzekoa, baita ere, Mikel Ugarte (1:59:53) Oñati Triatloi Taldeko kideak egindako lana, 17. postuan, Sub-23 mailako azkarrena izan baitzen. Guztira 272 lagunek parte hartu zuten.



Mikel Ugarte izan zen azkarrena Sub-23 mailan

■ MENDI LASTERKETAK

Iban Letamendi 3. Espainiako Kopan

Iban Letamendi Euskadiko selekzioko korrikalari oñatiarra hirugarren sailkatu zen Espainiako Kopako lehen proba puntuagarrian. Bartzelonan (Aiguafreda) jokatu zen mendi maratonia (42 kilometro eta 3000 m.-ko desnibel posi-tiboa) 3 ordu eta 58 minututan osatu zuen Letamendik, Luis Alberto Hernando irabazlearengandik 6 minutura. Euskal selekzioko kideen artean azkarrena izan zen.

■ TXIRRINDULARITZA

Txintxurreta eta Murgiondo podiumean



Aloña Mendi-Ulma taldeko Ekaitz Txintxurreta eta Xabier Murgiondo podiumeko bigarren eta hirugarren mailara igo ziren, hurrenez hurren, Kadete mailako Eibarko proban. Andoni Igartua, Ander Gartzia eta Beñat Ormazabal taldekideek egindako lanari esker. Aloña Mendik taldeko sailkapena irabazi zuen. Bestalde, Tolosan jokaturako jubenil mailako lasterketan Julen Umerez 6. sailkatu zen.

■ ARETO BIZIKLETA

Spinning Maratoia Zubikoa kiroldegian apirilaren 5ean

Areto bizikleta maratonia egingo da Zubikoa kiroldegian larunbat honetan (apirilak 5). Arratsaldeko 4etan hasiko da eta hiru ordu iraungo du; 40 minutuuko lau saio egingo dituzte, bakoitza irakasle ezberdin batekin. 140 lagun-en-dako tokia egongo da.

■ KARATEA

Lau domina Gipuzkoako txapelketan

Aloña Mendiko karateka gazteek lau domina lortu zituzten Azkoitian jokaturako Gipuzkoako Kirol Eskolako txapelketan. Imanol Astudillo lehenengo sailkatu zen, eta Mikel Unzurrunzaga, Karmele Egaña eta Joakim Egaña hirugarren, nor bere kategorian. Denak ere kumite modalitatean.



Bestalde, martxoaren 29an Oñatiko XIX. Shotokan Txapelketa jokatu zen Zubikoan. Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatiko 118 neska-mutikok parte hartu zuten. Aloña Mendikoek 10 domina lortu zituzten. Imanol Astudillo eta Karmele

Egaña urrezkoa, Iker Jimenez eta Ekaitz Odriozolak zilarrezkoa, eta Alex Murua, Daniel Gomez, Ibai Cano, Alazne Unzurrunzaga eta Mikel Unzurrunzagak brontzezkoa. Argazkian daude Oñatiko karatekak.

Txapeldunen lehiaketan abestuko du **GANBARA ABESBATZAK**



Kantu Koraleko Espainiako Sari Nagusian parte hartuko du apirilaren 26-27an

Oraintxe urtebete Ejea de los Caballeros-eko (Zaragoza) abesbatzen lehiaketan lortutako garaipenari esker, Espainiako Sari Nagusian parte hartzeko aukera izango du aurten Ganbara Abesbatzak. Apirilaren 26-27an izango da, Ejean bertan, eta goi mailako beste hiru abesbatza izango ditu lehiakide: **Coro de Cámara de Madrid** (San Vicente de la Barquerako irabazlea), **Escolanía del Orfeón Pamplonés** (Zumarraga-Antiguako irabazlea) eta Valladolideko **Alterum Cor** abesbatza (Gijongo Sari Nagusiko txapeldunordea).

Bi modalitatetan abestu beharko dute: Polifonia eta Folklore; 20 minutuko saio bana. Oñatiarrek zailtasun maila handiko programa prestatu dute, Aitor Biain zuzendariak azaldu digunez. “Bai, programa potentea daramagu, zailtasun handikoa; obra batzuk doble-korora abestuko ditugu, eta folklorean ere gauza berriak sartuko ditugu. Gainera, hizkuntza ezberdinetan (ingeles, alemanez, latinez...) abestu behar dugu, eta programa osoa buruz ikasita eraman nahi dugu, karpetarik gabe abestu ahal izateko. Horrek ahalegin handia eskatzen du, baina oso lan ona egiten ari gara, eta uste dut oso momentu onean iritsiko garela”.

Lehiaketa irabazteko asmoz doazela aitortu digu Biainek. “Ilusio horrekin ari gara lanean, baina ez irabaztea ere ez litzateke

dezepzioa izango. Lehiaketaren helburua ez da bakarrik saria; bidean egindako lanak ere asko balio du, eta, esan bezala, oso lan ona egiten ari gara perfekzioaren bila. Geure buruarekiko oso exigenteak gara, eta horretarako lehiaketak oso onak dira, perfekzioa eskatzen baitute”.

Ganbara Abesbatzak badaki zer den Kantu Koraleko Sari Nagusia irabaztea; 2004an lortu zuen, Esteban Urzelai zuzendari zela.

Ejeari abiatu aurretik bi kontzertu eskainiko dituzte; bata Ordizian, apirilaren 13an, eta bestea Oñatin, oraindik zehaztu gabeko egunean. Lehiaketara joan aurreko entsaio orokor moduko bat izango da.

BESTELAKO PROIEKTUAK

Gogoratu, Ganbara Abesbatzak 20 urte betetzen dituela aurten. Urteurrenari hasiera emateko ‘Amaraun’ izeneko diskoa grabatu du. Aurrera begira berriz, Torreviejako Habanera lehiaketan parte hartuko du uztailan, talde gonbidatu gisa, eta udazkenean, Donostia eta Soriako musika zikloetan parte hartuko du. Urteurrena borobiltzeko, Carmina Burana abestuko dute urte bukaeran.

Datorren urtera begira, Arezzo-ko (Italia) nazioarteko lehiaketan parte hartzeko asmoa dutela aurreratu digu Aitor Biainek.

ARIZTERRAZUKO ERROMERIARA **Lizargarate Trikitizaleen eskutik**

Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, Arizterrazuko dantzaldira irteera egingo da **maiatzaren 1ean**. Aiako auzo bat da Arizterrazu, eta erromeria-zaleen topalekua izaten da urritik ekainera bitartean. Ikusgarria izaten da bertan sortzen den giroa. Ezagutzen ez baduzu, oraintxe duzu aukera.

Hauxe izango Lizargarate taldekoek da maiatzaren 1erako prestatu duten egitaraua: arratsaldeko 15:30etan irtengo da autobusa postetxeko geltokitik, eta Oriora joango dira. Bertan trikipotea egin ondoren, 18:30etarako iritsiko dira Arizterrazuko erromerixara.

Erromeria bukatuta, bertan afalduko dute, eta goizeko 1:00ak aldera itzuliko dira Oñatira. Urbia eta Arrano tabernetan eman behar da izena, **apirilaren 22a** baino lehen. Prezioa: 20€.

Udako ESKULAN eta SORMEN **tailerrak haurrentzat**

6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei aukera berri bat izango dute aurtengo udako oporraldian. Ekainaren 23an hasi eta irailaren 5era bitartean (abuztuko erdiko hiru asteetan izan ezik) eskulan eta sormen tailerrak egiteko aukera izango dute, eta aldi berean hizkuntzak praktikatu (ingeleza, frantsesa eta gaztelania).

Ugarkaldeko 34an egingo dira tailerrak, bertako lorategian, eta goizez izango dira, 9:00etatik 12:30ak arte. Lehenengo (9:00-10:45) tapizak eta artilez egindako feltroak eta bestelako apaingarriak egingo dituzte. Hamarretakoa egin ondoren, aisialdirako ekintzak (jolasak, dantzak, kantuak, ibilaldiak, ogia egiteko tailerrak...) egingo dituzte, ingeleza edo frantsesa praktikatzeko bitartean.

Astebeteko egonaldia 70€ kostako da; bi, hiru, lau, bost edo sei asteko egonaldia egin ahal izango da. Sei asteko egonaldi osoa 234€ kostako da. Bertan bazkaltzeko aukera egongo da (6,5€/eguneko). Informazioa: 645499236 (Conchi).

GANBARA TXIKIREN 10. URTEURRENA



III. 'KANTUA KALEAN'

- Herriko haur eta helduen abesbatza guztiak kantuan ariko dira kalean **apirilaren 5ean**.
- **Gaztetxoek abesbatzek zirkoa erako ikuskizuna eskainiko dute Gaztelekuan, 16:30etan**
- **Nagusien abesbatzek kalejira egingo dute Etxaluzetik Kale Zaharrerraino, 18:30etan**

GANBARA TXIKIren hamargarren urteurreneko ospakizunekin jarraituz, III. KANTUA KALEAN jaialdia ospatuko da apirilaren 5ean. Ganbara Txikiren 5. urteurrenean ospatu zen aurreneko jaialdi hau, eta orduko formatu bera izango du aurtengoak; hau da, herriko haur eta helduen abesbatza guztiak ariko dira kantuan egun berean eta kalean.

GAZTETXOEN ABESBATZAK ZIRKOA EKARRIKO DUTE OÑATIRA

Hiru zati izango ditu jaialdiak. Goiz partean, Ikastetxeak Kantariko taldeak, Musika Eskolako abesbatza, Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txiki taldeak elkarrekin ariko dira. Eguerdiko 12:30etan kalejira koloretsua egingo dute Etxaluzen abiatu eta Atzeko Kale eta Errementari plazatik pasa ondoren, herriko plazan amaitzeko. Arratsaldean Gaztelekuan eskainiko duten saioaren aurrerapena izango da, 16:30etatik aurrera zirkoa erako ikuskizuna eskainiko baitute, lehoi, pailazo, trapezista, mago eta guzti. Talde guztiek elkarrekin abestuko dute. Ordubeteko saioa izango da.

NAGUSIEN ABESBATZAK KALEZ KALE

Ganbara Abesbatzak, Oñati Abesbatzak, Parrokiako abesbatzak eta Jubilatuen abesbatzak kantu-kalejira egingo dute 18:30etan, Etxaluzen abiatu eta Kale Zaharrerraino. Bost geldialdi egingo dituzte ibilbidean, Etxaluzen, Guria parean, Portun, Onako plazarxoan eta herriko plazan. Talde bakoitzak saiotxo bana eskainiko du, eta saio bakoitzaren amaieran kantu herrikoiren bat abestuko dute, ikusleek ere kantatzeko aukera izan dezaten.

Aste Santuan PARISERA

Ganbara Txiki abesbatzak 10 urte betetzen ditu aurturten, eta hori ospatzeko irteera berezia prestatu dute. Parisera joango dira apirilaren 22tik 25era. Frantziako hiriburua ezagutzeaz gain, Eurodisney-ra joateko aukera ere izango dute, eta kontzertu bat ere eman asmo dute. Urteurreneko ekitaldiekin jarraituz, irailean 'Piratak' izeneko musikal berria eskainiko du Ganbara Txiki abesbatzak.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



LIBURUAREN HILABETEA

UDAL LIBURUTEGIAN

Liburuaren hilabetea izaten da apirila nazioarte mailan. Batetik, Haur Liburuaren Eguna ospatu ohi da hilaren 2an, Hans Christian Andersen idazlearen jaioteguna gogoratuz. Bestetik, apirilaren 23an Wilian Shakespeare eta Miguel de Cervantes idazleak hil ziren egunean, liburuaren eta idazle eskubideen aldeko nazioarteko eguna ospatzen da. Oñatiko udal liburutegian ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hilaren 1 eta 2an haur gaztetxo eta helduentzako ipuin kontaketa saio bana izan dira, eta hurrengo egunetarako ere beste hainbat iragarri dituzte.



IRAKURTZEA: PLAZERRA ETA ESKUBIDEA

Irakurketarako sarbidea behar soziala eta nazioarteko lege-testu desberdinetan aitortutako eskubidea da. Hala ere, populazioaren %30ek irakurtzeko zailtasunak ditu. Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizartearen, irakurleen ulermen zailtasunek pertsona asko bazterten ditu, irakurketa, komunikazio, informazio, heziketa edo aisiarako tresna moduan erabili ezin dituztenean.

Irakurketaren bidez hainbat talderen gizarteratzea ahalbideratzen da: aldi baterako zailtasunak dituztenak (etorkinak, eskolatze urrikoak, ikasketekin arazoak dituztenak) eta baita zailtasun iraunkorrak dituztenak ere (adinekoak, adimen urrikoak).

Hau dela eta, Oñatiko Udal Liburutegiak **Irakurketa Errazeko (LF)** materialak sustatzea erabaki du. Material hauek aipatutako egoera hobetzeko balio dutelako. Irakurtzea, ideiak, sentimenduak eta esperientziak baimentzen duen gozamina delako.

Hurbildu zaitez liburutegira eta ezagutu gure proiektu berri hau!

apirilak 8, asteartea

POESIA EMANALDIA, 'POBRESIAK: burgesiaren gauerdiko eztula'



'POBRESIAK: burgesiaren gauerdiko ezkula...' liburuan oinarritutako poesia emanaldia gazte eta helduentzat, Aimar eta Eñaut Uribealgoren eskutik. Ohiko poesiatik urrun, hitz zuzenak eta mezu kritikoak ardatz dituen lana da. Helduen liburutegian, 19:00

*'Gu al gara, gu al gara, gu al gara
gure buruaren jabe.
Ta pentsatzeko, ta pentsatzeko,
gai al gara?
Inork baldintzatu gabe!'*

apirilak 9, asteartea

MARRAZKETA GAZTEA, Pernan Goñiren eskutik

Nerabeei zuzenduta marrazki moderno eta dibertigarriak modu errazean egiten ikasteko tailerra, Pernan Goñirekin. **Haur liburutegian, 17:30**



apirilak 10, osteguna

ZINE KLUBA, ¿Qué hacemos con Maisie?



Henry James-en izen bereko nobelan oinarritutako filma. New Yorkeko bikote baten banaketa eta beraien 6 urteko alabaren kustodia lortzeko norgehiagoka ditu ardatz nagusi. **Kultur etxeko zine aretoan, 20:00**

apirilak 28, astelehena

MARRAZKETA GAZTEA ETA GRAPHIC RECORDING, Pernan Goñiren eskutik



Gazte eta helduentzako tailerra. Errotulagailu sinple batekin eta modu azkar, erraz eta eraginkor batean marrazten ber-ikasteko ariketak egingo ditugu. Sintesi bisuala, kontzeptu abstraktuen ikonizazioa, azkartasuna eta trebetasuna languko ditugu. **Udal liburutegian, 18:00.**

apirilak 29 eta 30

TERTULIXAN SAIOAK Joseba Sarrionandia eta Guillaume Apollinaire

Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) idazle bizkaitarraren 'Hnuy Illa nyha majah yahoo' (1985-1995 arteko poemak) liburua aztertuko dute euskarazko irakurle taldean **apirilaren 29an** (18:30). Bestalde, gaztelarazko taldean 'Guillaume Apollinaire (1880-1910) idazle frantziarraren 'Caligramas' poema liburua aztertuko dute **apirilaren 30ean** (18:30).



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Zuberoan kokatzen da istorioa, II. Mundu Gerran. Naziek Erresuma Batuko espioitzan dabilen hegazkin bat bota dute lurrera. Mattinek mugaz bestaldera pasatzen lagunduko dio pilotuari, On Txarles herriko apaiz mugalariaren laguntzarekin. www.amazon.com eta www.kobobooks.com atarietan eskura daiteke.

‘MATTIN, BASOKO GIDARIA’ komikia argitaratu du Jabier Erostarbek

► Bi plataforma digitaletan argitaratu du, euskaraz eta ingelesez (*Mattin, the forest guide*)

Jabier Erostarbe diseinugile eta ilustratzaile oñatiarrak ‘Mattin, basoko gidaria’ izeneko komikia argitaratu du formatu digitaletan, euskaraz eta ingelesez (*Mattin, the forest guide*); www.amazon.com eta www.kobobooks.com atarietan eskura daitezke.

48 orrialde ditu komikiak, eta II. Mundu Gerra garaian kokatzen da, Zuberoan. Mattin, 12 urteko artzai gazte zuberotar bat da. Naziek Frantzia osoa okupatuta dute eta Mattinen aitak ihes egin behar izan du erresistentzian sartuta dagoelako. Tartean, hegazkin naziek Erresuma Batuko espioitzan dabilen hegazkin bat bota dute lurrera eta bertako pilotoa, Larregainen, Mattinen baserrian ezkutatu dute. Pilotoa beste aldera pasatzeko herriko abadearen laguntza beharko du. On Txarles ez da ohizko apaiza, mugalari eta kontrabandista lanak ere egiten ditu.

Bigarren Mundu Gerran nazien aurka ari ziren talde klandestinoak Bidasoaren alde batetik bestera eramaten zituen *Comète* izeneko erresistentziako sarean inspiratutako istorioa da. Batez ere irakurle gazteei (10-20 urte artekoentzat) zuzendutako komikia da. Erraz eta gustura irakurtzen den istorioa da; erritmo bizikoa eta suspenseari eusten diona hasi eta buka. Oso gomendagarria.

Erostarbek berak autoeditatutako lana da. Irudiak ez ezik, gidoia ere berak sortu eta idatzitakoa da. Euskarazko testuen zuzenketa eta moldaketan Amaia Erostarberen laguntza izan du.

Ibilbide luzea du Erostarbek ilustratzaile gisa. Felipe Juaristi, Joxemari Iturralde, Joanes Urkio, Aitor Arana, Iñaki Zubeldia eta Antton Kazabon bezalako idazleekin kolaboratu izan du, eta komiki ezberdinetan ere parte hartu izan du gidoigile eta marrazkigile gisa, baina haxe du oso osorik bere-berea duen lana.



Irudi guztiak hasieran eskuz eginda daude; gero, eskaneatu eta ordenagailuz marraztu eta koloreatzen ditu Erostarbek

MARTXOKO AGENDA

**apirilak
11**

KONTZERTUA GAZTELEKUAN 'GOSE'. Trikia eta elektronika



Trikitixa eta musika elektronikoa uztartuz, neurri batean trikiaren kultura irauli duen 'Gose' talde arrasatearraren kontzertua entzuteko aukera izango dugu hilaren 11n. Ines Osinaga, abeslari eta soinu-jolea, eta Iñaki Bengoa (Bad F-line) eta Iñaki Osoron (Kañeria, Des-kontrol eta Gatillazo) gitarra joleek osatzen dute Arrasateko talde arrakastatsua. Bost diko dituzte merkatuan. *Gaztelekuan, 22:30 (Sarrera: 5€).*

**apirilak
13**

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'BEHIND'. Blues-rock musika



Javier Irigoyen eta Gerardo Sagasti musikariak dira BEHIND taldeko partaideak. Formatio akustikoan blues eta rock-aren klasikoak osatutako errepertorioa jotzen dute: Eric Clapton, Beatles, Neil Young, David Bowie, Rolling Stones. Lou Reed eta abar luze bat. *Igandea, 19:30.*

**apirilak
27**

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'IBON CASAS Y LA FONDA'

'Ibon Casas y La Fonda' taldeak bere show berria eskainiko du. Blind Rock akustikoa. Energia betea eta oso debertigarria. Metalaren munduan ezaguna da Ibon, baina oraingoan formato akustikoan ikusiko dugu. *Igandea, 19:30.*



ARGAZKI ERAKUSKETA Itziar Bastarrika - 'IHIA'

Itziar Bastarrika oñatiarrak 'IHIA' izeneko argazki bilduma dauka ikusgai Legazpiko 'Pelu'nean (Kale Nagusia 11). Azken urte eta erdian egindako irudiek osatzen dute erakusketa. Denbora horren joan-etorriak Itziarren eragin duena adierazi nahi izan du argazki horien bidez. Zuri-beltz analogikoan egina dago, eta prozesu guztia (argazkiak atera, errebelatu, handitu, enmarkatu...) Itziarrek berak egin du. Oraindik ere hazten ari den proiektua omen da 'IHIA' egileak berak adierazi duenez, eta Legazpikoaren ostean beste herri batzuetara eramateko asmoa du.



ARGAZKIGINTZA TAILERRA Ilunpetan taldearen eskutik

ILUNPETAN argazki taldeak aurtengo bigarren tailerra antolatu du. Hastapen mailakoa izango da. Kamera erabiltzen eta ikasi eta argazkiak hobetzeko tresnak landuko dira. Maiatzaren 6, 13, 17, 20 eta 27, eta ekainaren 3, 10, 17 eta 24an izango dira saioak. Prezioa: 60€. Izen-ematea, apirilaren 14tik aurrera, ilunpetan@gmail.com edo 605 753 966 zenbakira deituta.

● 'BOMAG' FESTA / APIRILAK 11

BOMAG Bizi Oñati Magazinak urte bat bete du, eta hori ospatzeko lehenengo BOMAG FESTA antolatu du herriko hainbat denda, zerbitzu eta tabernarekin elkarlanean.

Apirilaren 11n izango da festa. Hauxe da egitaraua:

18:00-19:00 Umeentzako Estanpazio tailerra Barkardadeko Ama kaleko plazatxoan, Lezuri Ormazabalen eskutik.

18:00 Ekintza ezberdinak Kale Zaharreko dendetan.

19:30 'PINTXOBIRA'; 1.000 pintxotik gora 10 tabernatan.

19:30 - 22:00 Ilunkara musikak San Anton plazan. Lehenengo kontzertua, eta 20:30etatik aurrera DJ EBIL.

● Haurrentzako antzerkia / APIRILAK 13

Apirilaren 13an, igandea, 'Egun berri bat' izeneko haurrentzako ikusteko auker egogno da Gaztelekuan, 12:30etan (3€).

● Ikastaroak KZgunean

Honako ikastaro hauek eskainiko ditu Oñatiko KZguneak apirilean: OINARRIZKO INTERNET: 'Internet ikastaroa' (apirilak 1-14); SOFTWARE LIBREA 'OpenOffice Writer I eta II' (ap. 15 eta 16); 'Impress' (ap. 7); SARE SOZIALAK 2.0: 'Facebook I eta II' (ap. 28); 'Youtube' (ap. 29). Informazio gehiago: 943 023672 edo tutor.onati@kzgunea.net

ANTIXENA GAZTETXEAN - APIRILEAN

► APIRILAK 4, OSTIRALA (18:30)


HITZALDIA: Elikadura burujabetza.
'Hazi, Hezi, Izan' dinamikaren baitan.

► APIRILAK 5, LARUNBATA

Denok Iruñara, abortatzeko eskubidearen alde.
KONTZERTUA: 'Las Tuercas' eta 'Discípulos Dionisos' taldeen kontzertua.

► APIRILAK 6, IGANDEA

KONTZERTUA: 'Mursego' taldearen kontzertua, 18:30etan. Maite Arroita jauregi artista dago Mursego taldearen atzean. Euskal Herrian azken urteetan proposamen musikal interesgarrienetarikoa egin duen artista. Hiru diska kaleratu ditu. Cello-a oinarri hartuta, munduko soinu desberdinak nahasten ditu.



► APIRILAK 12, LARUNBATA (19:00)

KONTZERTUA: 'ARCADA SOCIAL' taldearen kontzertua.

► APIRILAK 17, 18, 19 ETA 20 (19:00)

GAZTE BURUTAKZIO TOPAKETAK. Oñatiko gaztetxetik ere bertan izango gara.


► APIRILAK 24, OSTEGUNA

Gaztetxeko GARBIKETA OROKORRA.

SENDABELAR TAILERA

APIRILAK 19 EDO 26

Sendabelarren inguruko tailerra emango dute Anek eta Ainhoa Anti-xena gaztetxean. Hogeia lagunendako kopuru mugatua izango denez, bi aukera egongo dira parte hartzeko, apirilaren 19an edo 26an. Goiz partean (10:30-14:00) landarak batzera irten dira mendira, eta arratsalde partean (16:00-19:00) sendabelarren elaborazioa landuko dute. **Katarroak, eztarriko mina, erredurak, zauri eta golpeak** eta **ziztadak** sendatu edo goxatzeko enplasto eta edabeak nola prestatzen diren azalduko dute, eta baita **ile-erortze** eta **kaspa** edo zahi arazoei aurre egiteko ere.



Gaztetxean bertan edo Ona tabernan eman daiteke izena. Prezioa: 3€. Gaztetxean bertan bazkaltzeko aukera egongo da.

► APIRILAK 25, OSTIRALA (19:00)

IRAKURLE TALDEA: Leire Bilbaoren 'Scanner' liburuaren inguruan hitz egiteko aukera egongo da..

► APIRILAK 27, IGANDEA (09:30)

MENDI IRTEERA. Aurrekoan Oñatiko Uraren ibilbidea egin ondoren, bigarren mendi irteera egingo dugu gaztetxetik.

TXANTXIKU IKASTOLAREN EGUNA - 2014

■ APIRILAK 4, OSTIRALA:

HH-5 eta LH-1eko ikasleentzako TXOTXONGILO EMANALDIA gaztelekuan (10:00)

■ APIRILAK 7, ASTELEHENA:

ANTZERKI EMANALDIAK ingelesez, English Theatre Company taldearen eskutik (09:00 eta 11:15)

■ APIRILAK 11, OSTIRALA:

Goiz eta arratsalde partean IKASLEEN EUSKARA TALDEAK antolatutako ekintzak.

Arratsaldean (14:30-18:00) JOLAS PARKEA Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan.

JAIALDIA kiroldegiko pilotalekuan ikasleen eskutik, guraso guztiei zuzendua (18:00). Jaialdian zehar gaitzaren eraginez, kiroldegia itxita izango da. Jaialdian zehar gaitzaren eraginez, kiroldegia itxita izango da.

■ APIRILAK 12:

JOLAS PARKEA (11:00-14:00) Santa Ana eraikineko jolaslekuan.

TAILERRAK (11:00-13:00) plazako pilotalekuan eta ATE IREKIAK Haur eta Lehen Hezkuntzako

geletan. Goizean zehar KILOMETROAK ekitaldiko materiala salgai egongo da jolaslekuan.

PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS pailazoen 'BIZIPOZA' ikuskizuna kiroldegian 17:00etan.. Sarrei (3€) ikastolako

idazkaritzan salgai.

TALO TAILERRA Santa Ana eraikineko jolaslekuan, Eskola Agenda 21eko lantaldearen eskutik.

■ APIRILAK 13, IGANDEA:

BIZIKLETA MARTXA (12:00) ikasle eta gurasoei Oñati eta San Prudentzio arteko bidegorritik,

Eskola Agenda 21 lantaldeko ikasle, guraso eta langileek antolatuta.

■ APIRILAK 30, ASTEAZKENA:

OINEZ IKASTOLARA ekimena Eskola Agenda 21 lantaldearen eskutik. Sentsibilizazio saioak egingo dira gurasoak eta ikas-

leak ikastolara oinez joan daitezten.

Oharra: BIDEZKO MERKATARITZA DENDA

Txantxiku ikastolaren egunaren harira, ikastolakoek Bidezko Merkataritza denda zabalduko dute Kale Barriako 9an hurrengo bi asteburuetan (apirilak 4-5 eta 11-12). Bertan batutako ditrua M^a Carmen Markuletak dominikar Errepublikan duen proiektura bideratutako da



Mondragon Goi Eskola Politeknikoki ikasleak Europako Robotika lehiaketako finalean


Mondragon Goi Eskolako Lanbide Heziketako ikasleek Europako FTC (First Tech Challenge) Robotika lehiaketako finalean parte hartu dute. Nazioarte mailako lehiaketa hau 18 eta 23 urte arteko ikasleei zuzenduta dago. Ikasleek robot bat diseinatu, fabrikatu, montatu eta programatu behar dute, era autonomoan nahiz teledirigir-tuan lan egiteko gai dena, aurrez finkatutako joko-arauak oinarri hartuta.

Edizio honetan, konkretuki, robotak gai izan behar zuen kaxa batzuk lurretik batu eta mugimenduan zeuden ontzi batzuetan sartzeko, besteak beste. Horretarako, robotak ekipamendu elektroniko indartsu bat eta era asktako sensorez hornitu dute, besteak beste, kolore eta mugimenduarena. Urrutiko kontrola bost motorrez osatutako sistema baten bidez egokitu dute.

Mondragon Goi Eskola da lehiaketa honetan parte hartzen duen Euskal Herriko ikastetxe bakarra. Guztira, Europa osoko 2300 taldek parte hartu dute sailkatze fasean, eta horietako 40 iritsi dira finalera. Martxoaren 29an jokatu zen finala Eindhoven-en (Holanda), eta gure ordezkariak finalerdiraino iritsi ziren.



Lanbide Heziketako 11 ikasle eta 4 tutorek osatzen dute Robotek Taldea. Tartearen hiru oñatiar daude: Gaizka Egaña ikaslea, eta Asier Ugarte eta Jabier Arkauz irakasleak.



Mondragon Goi Eskolako Robotek taldea 11 ikasle eta 4 tutorez osatuta dago. 'Fabrikazio Mekanikoa', 'Automatizazio eta Robotika Industrial' eta 'Sistema Elektrotekniko Automatizatuak' zikloetako ikasleak dira.

Iaz irabazi egin zuten FTC lehiaketa eta horri esker Estatu Batuetan egin zen munduko finalean parte hartu zuten. Aurten finalerdira iristerarekin konformatu behar izan dute, baina agerian geratu da beste behin Mondragon Goi Eskolako Lanbide Heziketan egiten den lan ona, teknologia maila handia eskatzen baitu lehiaketak.

Eskolarteko bertsolari txapelketako finalerako sailkatu da Maider Arregi

Maider Arregi Oñatiko Bertso Eskolako kidea onena izan zen martxoaren 21ean Zunarragan jokaturako kanporaketan eta, honenbestez, maiatzaren 11n Arrasaten jokatu den Eskolarteko Bat-Bateko Bertsolari Txapelketako finalean parte hartzeko txartela eskuratu du.

Ama-Lur elkartearen izan zen bertso-saioa, 60 bat bertsozaleren aurrean, eta Maiderrekin batera Gontzal Belategi oñatiarrak ere kantatu zuen, zazpikotea osatuz. Oso maila onean aritu ziren denak. Txapelketa honetan parte hartuko duen hirugarren oñatiarrak, Urko Arregik, Mutrikun abestuko du apirilaren 4an.



**Maiatzaren 11n
jokatuko da finala
Arrasaten,
Gipuzkoako
Bertso Eskolen
Egunarekin batera**

Marrubi-postreen LEHIAKETA



Sustrai fruta dendak antolaututa, marrubien postre lehiaketa egingo da apirilaren 25ean, arratsaldeko 6etan, Kale Barriako dendan.

Bi maila egongo dira: helduena eta haurrena. Osagai nagusi bezala marrubiak dituzten postreak eraman beharko dira bertara. Postreen osagaiak, zaporea, aurkezpena eta origi-naltasuna puntuatuko dira. Sariak: bi lagunendako pintxo-dastatze afaria Luis taberna (helduak) eta barazki-otar eder bat (haurrak).



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Apirilak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24,
eta maiatzak 2, 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Apirilak 7, 8, 16, 25, 26 eta 27
eta maiatzak 1, 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Apirilak 9, 10, 17, 18, 19, 20, 21, 28
eta 29 eta maiatzak 7 eta 8.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Apirilak 11, 12, 13, 22 eta 30, eta
maiatzak 9 10 eta 11.

Guardiako taxilariak

MAR. 31 - APIRILAK 6
ANA ORUETA
650 059 999 / 943 53 40 82

APIRILAK 7 - 13
JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

APIRILAK 14 - 20
JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

APIRILAK 21 - 27
JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

APIR. 28 - MAIATZAK 4
JOSE LUIS RABANETE
600 57 50 92 / 658 73 27 09

OÑATIKO TAXI GELTOKIA
943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA
943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa.....943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa.943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENEFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

APIRILAK 4
MAIATZAK 9
EKAINAK 13
IRAILAK 12
URRIAK 10
AZAROAK 14

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

MAIATZAK 27

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
arteana atera behar dira.

Merkatu Txikia

Klase partikularrak. Lehen Hezkuntzan graduatutako neska esperientziaduna Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eta laguntzeko prest. Deitu: 680 151 865

Autokarabana alokatzen da Aste Santurako. Perfilatua da 2 edo gehienez 4 plazakoa, guztiz ekipatua. Prezio onean. Gehiago jakin nahi izanez gero, deitu 635714139 (Antxon)

Belarra mozteko makina hidrostatikoa, viking cyclon MT585 salgai. Oso ondo zaindua. 2007koa. 1800 euro. Deitu: 685 756 778

Etxebizitza alokatzen da Bidebarrieta kalean. 95m². Egongela, sukaldea, hall-sarrera, trastelekua, terraza zabala, hiru logela eta bi bainugela. Guztiz jantzia. Deitu: 629 373 919

Garaje plaza itxia alokatzen da Bidebarrieta-Atzeko Kale aldean. 619817072

Klase partikularrak. LH eta DBH mailak. Esperientzia handiko irakaslea. Ordutegi flexiblea, ikasleen beharren arabera. Jarraipen pertsonalizatua. Deitu: 943 782843 / 653718030 (Jaione)

Motorra salgai, BMW serie 3. Compact modeloa. Jabe bakarra. Egoera oso onean. Prezio onean. Deitu: 619 817 072.

Haur txiki bat ordutua zaintzeko Oñatiko pertsona gazte baten bila gabiltz. Deitu: 652722933

Hektarea inguruko lursaila erosiko nuke, ortua, frutarbolak eta animaliak jartzeko. Animalientzako borda baldin badauka, ezin hobe. 661 770 179

Etxebizitza salgai Olakuan. 3 logela, jangela, sukaldea eta 2 komun (berrituak). Igogailu eta beragailuarekin. 180.000€. Deitu: 635 062 479

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixia

Erramu domekako meza ondoren San Pedron

Aste Santuari hasieria emunaz, Erramu Domekia dago eliza katolikuaren liturgixan. Jesukristoren bizitzako azken egunetako pasadizuak gogoraketan dira astian zihar: bere pasiñua, heriotzia eta piztueria. Domeka bixetakuak gertaera pozgarriak dira, aste barrukuak, berriz, lazgarriak gehixenak. Erramu Domekan Jesukristo Jerusalem sartzu zala dixo ebanjelixuak, asto baten gainian eta bere jarraitzaillien biba eta kantuen artian. Aldeko zittuan lagunok **olibo-adarrak** eukain eskuetan. Hortik dator, nunbait, egun horretako elizkUNETAN palmonduak eta **erramuak bedeinkaketako ohittura zaharra**.



Oñatiko parrokiakako meza nagusixan bedeinkaziñuaren ondoren, prozosiñua egitten zan eliza inguruan. Baiña auzuetako parrokitetan, Araotz nahiz Urruxolan, eta **ermitta batzuetako mezetan be bedeinkaketan ziran erramuak**. Gaurko fotografixa honetan agerketan xaku Torreauzoko San Pedro ermittan halako egun batian parte hartutako neska eta neskatilla batzuk. **Torreauzoko San Pedro ermitta** Oñatiko zaharrenetakua dala esaten da herriko ahozko tradiziñuan. Ba, hantxe, XX. gizaldixaren lehenengo hamarkadetan eta geruago be bai, **domekero emuten euen mezia** hona etorri barri ziran **agustiño laterandarrak**: goiz samar, zazpi t'erdittan, ondoren abadiak beste meza bat emun bihar ebelako aldameneko Zañartu auzuan. Baraua ezin zan hautsi orduan.

Hona, ba, argazkiko neska eta neskatilla horrein inguruan batu ahal izan dogun informaziño apurra. Saiatu, saiatu egin gara, benetan diotsuegu, baiña, batari eta bestiari galdetu arren, oraingoz eztittugu guk gura besteko argibidiak eskuratu. Guztiak ezpadira be, neska gehixentsuenak **Garibai auzokokuak** diralakuan gagoz. Dana dala, fotografixia ikusi eta gero, beste oñatiar batzuek be hutsunak beteten eta argiketan lagunduko doskuela pentsaitten dogu. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue orain arte ezagututakuak:

Goixeneko illaran: bigarrena, **Bittoriana Egaña**, Dolaetxeko alabia, gerora Errotabarrira ezkondu zana; laugarrena, **Paula Egaña**, Dolaetxekua, San Antue kalera ezkondua; bosgarrena, **Hipolita Egaña**, Garibaigoittikua, Eskoriatzara ezkondua; eta zortzigarrena, ertzian, **Nikolasa Egaña**, Dolaetxekua, Kale Zaharrera ezkondua.

Bigarren illaran: lehenengua, **Martiña Egaña**, Garibaigoittikua, San Pedroko Torrera ezkondua; seigarrena, **Joxepa Egaña**, Garibaigoittikua au be eta Mutrikura ezkondua.

Beheko illaran: erdixan bosgarrena, **Juanita Guridi** [?] Argiñenekua, Santa Marinara ezkondua.

Argazkixak atzian seillu hau dakar: **FOTOGRAFÍA AUSTRO-ALEMANA / OÑATE (Guipúzcoa)**. Lehenego mundugerran edo ondorentxuan aleman eta austriar batzuk aillegau ziran hona be. Halakoren bat ete argazkilarixa? Ezta datu horreik dakon erretratu bakarra. Ia baten batek horren gaineko barri zihatzagorik emuten doskun. Orain arte idatzittakuak eta protagonisten jantzixak nahiz orrazkerak kontuan izanda, **fotografixa 1920ko hamarkadiaren hasierakua** dala esango geuke.

J. E

Milla esker gure inbestigaziñotxo hau samurtu doskuen Elena Egaña, Dolores Egaña, Pakita Egaña, Manolo Egaña, Luxia Ugarte, Nieves Egaña, Joxe Luis Arregi eta Joxe Mari Arregiri.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 9 • 18:00

Maiatzak 24 • 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 73 97 65



MATRIKULAZIO EPEA : Maiatzean izango da 5etik 14ra. IRAILETIK AURRERA HASTEKO



Txiki-Txoko

Onatiko Haurreskola



0-2 URTEKO

HAURRENTZAT APIRILAK 29

ASTEARTEA ATE IREKIAK

17:30etatik - 19:30ra

OLAKUA 19
Telf.: 943716405

“BADAKIZU ZERGAITIK
AZTERTZENDUDAN
NIRE ENTZUMENA
GAES-EN?”

“EGUNEN BATEAN DENA ERREPIKA
DIEZADATELA SAIHESTU NAHI DUDALAKO.”



* kontsultatu kondizioak hurbilen duzun zentruan.

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • **ARRASATE**
Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • **BERGARA**